



Historiako Gradua

Historia Garaikideko Departamentua

**ETAko BURUZAGITZAREN AZTERKETA  
PROSOPOGRAFIKOA**  
(1959-1975)

Egilea:

Paul Seijo Zabalbeaskoa

Zuzendaria:

Unai Belaustegi Bedialauneta

## LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honek azterketa prosopografiko bat proposatzen du. 1959 eta 1975 urteen artean ETako zuzendaritzan izandako 7 pertsona oinarritzat hartutako lana da, eta ikerketaren emaitzak aurkezten dira hemen. Sarreran lanaren helburuak eta asmoak azalduta, azterketa prosopografiko bat zer den azaltzen da, eta geroago ezaugarri horietako azterketa bat abiatzeko beharrezko metodo analitikoa. Metodo hori lan honetan zelan aplikatu den azaltzeaz gain, taldearen hautaketa nola egin den eta lanaren parametro analitiko nagusiak zeintzuk diren aurkezten da. Behin hori eginda, aipatu organizazioa bere garai historikoan kokatzen da, eta ikerketa prosopografikoaren emaitzetara pasatu.

7. atal horrek osatzen du lanaren muina, azterketaren emaitzak aurkezten baitira. Bere baitan atal ezberdinak banatzen dira, pertsonaiak ikertzeko erabilitako eskemarekin kointziditzen dutenak; hala nola, bizi traiektoriaren kokapen orokor bat; jatorrizko baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalen ikerketa bat; ETako traiektoria militanteko eta izandako postuen errepasso bat; garaian mantendutako posizio teoriko eta politiko nagusien esposizio bat; eta azkenik ETA osteko ibilbide militantearen naiz ETako garaiarekiko izandako ikuspegiaren aurkezpen bat egin da. Nola ez, ikerketatik ateratako ondorio nagusiak ere jaso dira, eta lanean izendatu eta erreferentziak jarri diren iturrien zerrenda bibliografikoarekin bukaera ematen zaio.

# AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	3
2. AZTERKETA PROSOPOGRAFIKOA .....	4
3. METODOA .....	6
4. TALDEAREN HAUTAKETA ETA PARAMETRO ANALITIKOAK .....	7
5. TESTUINGURU HISTORIKOA .....	10
5.1. ETAREN SORRERA ETA LEHEN URTEAK .....	11
6. IKERKETA PROSOPOGRAFIKOAREN EMAITZAK .....	16
6.1. BIZI TRAIKTORIA .....	17
6.2. JATORRIZKO BALDINTZA SOZIAL, KULTURAL ETA EKONOMIKOAK .....	19
6.2.1. MAILA SOZIALA .....	19
6.2.2. FAMILIA .....	20
6.2.3. INGURU SOZIALA .....	21
6.2.4. EUSKARA .....	23
6.2.5. ETA AURREKO MILITANTZIA .....	24
6.3. TRAIKTORIA MILITANTEA ETA POSTUAK .....	25
6.3.1. IBILBIDE MILITANTEKO EKINTZA, JARDUN ETA ARDURAK .....	26
6.3.2. ZUZENDARITZARA HELTZEKO MODUA .....	28
6.3.3. MILITANTZIA UZTEKO ARRAZOIAK .....	29
6.4. GARAICO POSIZIO TEORIKO ETA POLITIKOAK .....	31
6.4.1. NAZIO AUZIA .....	32
6.4.2. AUZI SOZIALA .....	33
6.4.3. BORROKA ARMATUA .....	34
6.5. ETA OSTEKO MILITANTZIA .....	36
6.5.1. ETA OSTEAN NON MILITATU ZUEN .....	36
6.5.2. ETAKO MILITANTZIAREKIKO IKUSPEGIA .....	37
7. ONDORIOAK .....	38
8. BIBLIOGRAFIA .....	41

# 1. SARRERA

Eskuarteko proiektu hau, bertako kide izan zirenen azterketa biografikoaren bidez ETaren eta etakideen historia eta organizazioaren lehen hamabost urteetako garapena aztertzeko xedearekin sortu zen. Paper eta tinta mordoa erabili da ETaren eta etakideen inguruko historiaz, biografiez eta gertaera zehatzez idazteko, baina sekula ez da gai hau metodo prosopografikoaren bidez landu. Ez behintzat autoreak jakin ahal izan duenez. Metodo honen bitartez, beraz, ETA, etakideak eta testuinguruaren ikerketan sakondu nahi izan da.

Proiektua, gutxienez, zirrargarria da, baina graduiko ikasketetan zehar ikasten ez den metodo analitiko bat erabili nahi izateak baditu bere zailtasunak, hare gehiago metodo hori bera akademiarentzako ere hasi berria denean eta behar beste ikerketa oraindik izan ez direnean. Baina arazo hauek biderkatu egiten dira gaia horren korapilatsu, nahasi, ilun, eta zergatik ez, odoltsua denean, informazio iturrien kopurua urria eta horien fidagarritasuna ezbaikoa baita mitoen eta beldurren eraginez.

Hala eta guztiz ere, burututako lanak bi ekarpen nagusi dakartzala ziurtasunez baieztatzen du autoreak. Batetik, ETaren historian sakondu izana, gai honi lotutako hipotesi eta ikerketa lerro berriak irekitzeko aukerak mahai gaineratuz. Eta bestetik, metodo prosopografikoaren zabalpenerako urrats bat eman izana: gizarteko zirrikitu ezkutuenetan ere, zailtasunak zailtasun, prosopografia aplikagarria dela erakutsi baitu lan honek, horrela metodo hau esparru akademikoetan, eta orokorrean, historiografikoetan hedatzera lagunduz.

## 2. AZTERKETA PROSOPOGRAFIKOA

Lan honen objektua, izenburuak adierazi bezala Frankismoan zehar ETAREN (Euskadi Ta Askatasuna) gidaritza eta zuzendaritza lanetan aritutakoen perfil orokor bat ateraz, testuinguru historikoa ulertu zein ETAREN jardunbidean, osaeran eta historian sakontzea da. ETAREN lehen hiru bosturtekoen garapena ondo ulertu ahal izateko, organizazioa fundatu, eratu eta urte hauetan zehar aurrera eraman zuten pertsonaia nagusiak gogoan izatea ezinbestekotzat hartzen da, eta horretarako azterketa prosopografikoa metodologia egokia da.

Prosopografia edo biografia kolektiboa historia aztertzeko metodo bezala ulertzen da, eta aztertu beharreko objektuan esanguratsuak izan direnen biografietan du oinarria (Stone, 1986, 61). Etimologikoki *prosopon* (aurpegia) eta *graphos* edo grafia (idazketa edo deskripzioa) hitzen elkarketatik sortua da, eta pertsona baten kanpo-itxuraren deskribapena nahiko luke esan<sup>1</sup>. L. Stoneren arabera XX. mende hasieratik datorren ikerketa metodo bat da, eta talde baten ezaugarri komunak bildu eta kolektibo bat osatzen duten heinean pertsonaia indibidualen bizitzaren azterketa egitean datza (Stone, 1986, 61). Dena dela, pertsonaia batek garrantzia berezia izan arren, ez da biografia konkretu batera mugatzen. ETAREN kasuan ere, arrazoi desberdinak tarteko pisu desberdina izan du zuzendaritzako kide bakoitzak, eta batzuk gehiago gailendu dira beste batzuekiko. Hala ere, ahal bezain talde zabalena hautatu da.

Biografia pertsonal bakoitza inguruko pertsonaien biografiarekin zein testuinguruarekin alderatuz, eta testuinguru honetan kokatuz ulertzen eta definitzen da (Carasa, 1994), eta horretan datza prosopografiak: aztergai dagoen objektuari loturiko biografia multzo bat egin eta hauen arteko konparaketan eta loturetan. Horrenbestez, biografiak egiteko momentuan ausazko faktore, ezaugarri eta informazioak baino, aurrez planifikatutako datuak bilatuko dira eta biografiak ez dira modu inprobisatuan eta pertsonaiaren arabera modu ezberdinean osatuko. Behin aurretiaz interesatzen diren aspektuak zehaztu ondoren hauen arabera osatu dira biografiak, eta biografia horiek jaso, klasifikatu eta batez ere ezaugarri komunak azpimarratzea da prosopografia. Metodo honen bidez objektuaren profil orokor batzuk eskuratzen dira.

Biografiaren erabilera aspaldidanik dator, gutxienez Grezia klasikotik, baina nabarmen aldatu du formaz mendeetan zehar (Azkuenaga, J. eta Urquijo, M, 2007, 57). Hala nola, aipagarria,

---

<sup>1</sup> “Prosopografía”, *Real Academia Española; Asociación de Academias de la Lengua Española* (2019). *Diccionario de la Lengua Española (DLE)* 23.3 bertsio elektronikoa. (2020/V/09an kontsultatua: <https://dle.rae.es/prosopograf%C3%ADa?m=form>)

XVIII. mendetik aurrera zabaldu zen hiztegi biografiko nazionalak egiteko joera, gizarte berriaren justifikazio burgeserako helburua zutenak. Aro garaikidean zehar biografia historia orokorra aztertzeke eta testuingurua ulertzeke bitarteko, eta finean jakintza historikoaren adar bihurtzen joan da. Gizaki ororen unibertsaltasunaz kontzientzia hartzen joan da, inor ez baita bere testuinguru historikotik edo inguru sozialetik (ekonomia, politika, kultura...) kanpo, horrenbestez, indibiduo bakoitzaren historia ezagutzuz, kolektiboaren historiara hurbilpen bat egin daitekela ulertu da; bizimodua, harremantze formak, kultura, ohiturak eta abar. Are gehiago, kolektibo konkretu bat hartzen baldin bada aztergai. Ikerketa prosopografikoa egiteko, testuinguruaz gain, eragile indibidual bakoitzaren bizitzaren gaineko analisi zehatza, eta tradizionalki alboratuak izan direnen azaleratzea eta garrantzia azpimarratzea dakar metodo honek (Azkuenaga, J. eta Urquijo, M., 2007, 70-71).

Historiako subjektuak (pertsonea, edo kasu honetan, pertsona taldea) beraz, garrantzi berezia hartzen du objektua (historia, garai zehatzago edo zabalagoak hartuta ere) aztertzerakoan, objektuaren beraren emaitza dela ulertzen baita, eta aldi berean objektuaren sortzaile erlatiboa. Mugimendu sozialetatik adierazi izan den pertsonalaren eta politikoaren arteko baturak ("pertsonea politikoa da, eta politikoa pertsona") zentzu guztia hartzen du hemen.

ETA bezalako biolentziaren erabiltzaile diren taldeei dagokionez, Martha Crenshaw-k hausnarketa sakonak eman ditu zentzu honetan. Bere aburuz, hautu kontziente bezala organizazioa bera da bere helburuetarako terrorismoaren erabilera hautatzen duena, nahiz eta baldintza historiko konkretu batzuetan egiten duen hau. Hau da, determinismo historikoan erori gabe, eta errealitatearen konplexutasuna onartuta, liderrek beraiek aukeratzen dutela metodo hauen erabilera dio (Crenshaw, 1981)<sup>2</sup>, biolentziaren erabileran ere, kontestuaren eta norbanakoaren arteko banaezintasuna marraztuz. Fenomenoak ez baitira automatikoak, halabeharrezkoak, patuzkoak edo garai historikoak ezinbestean inposatutakoak, hautu kontzienteak dauzkate atzetik. ETAREN kasuan elementu horiek aztertzerakoan bidean sarrera bat eskaintzen da lan honetan: kanpo-faktore edo elementuak (testuingurua,...) eta barne-faktoreak (kideen iruditegi belikoa,...) aztertuz (Fernandez, 2014, 274).

Lan hau, metodo honen baliagarritasunaren erakusgarri izan daiteke, eta prosopografia esparru anitzetan aplikagarria denaren adierazgarri. ETA bezalako talde ezkutatu edo

---

<sup>2</sup> Antzeko adierazpenak irakurri daitezke Gaizka Fernandez Soldevillaren tesian (Fernandez, 2012, 81): "*Siguiendo a autores como Juan Aranzadi, Kepa Aulestia, Santos Juliá y Juan Pablo Fusi, considero que los dirigentes de ETA decidieron libre y conscientemente apostar por la violencia, pero no conviene olvidar que dicha elección estuvo influida, que no determinada, por el contexto autoritario, la narrativa nacionalista y la emulación de los modelos internacionales.*"

klandestino, politiko, armatu eta delitugile bat aztertzeak bere horretan dauzkan arazoak kontuan izanda metodo prosopografikoa erabili izanak, metodoaren beraren erabilgarritasuna eta historiako zirrikitu ezkutuetan ere aplikagarria dela erakusten du, nahiz eta historiografian metodo honen hedapena ez den autoreari gustatuko litzaiokeen bestekoa. Esan beharra dago, bestalde, metodo prosopografikoak azterketa historikorako, eta bereziki ETaren azterketarako eskaintzen dituen aukerak guztiz zukutu gabe daudela. Gradu amaierako lan batek bere horretan dituen mugak kontuan izanda, autoreak ez du gustatuko litzaiokeen beste lan honetan sakontzeko betarik izan. Lehen pauso bat izan arren, prosopografiak asko dauka emateko ETaren historiari dagokionez. Baita orokorrean historiari dagokionez ere.

### 3. METODOA

Atal honetan ikerketa hau eraginkorra izan dadin zein pauso jarraitu diren azaltzen da, izan ere eraginkortasunaren bila eta metodo honen bidez esperotako helburuak lortzeko era egoki batean diseinatu behar da ikerketa prozesua. Aurrez planifikatutako modu batean. *“Para obtener resultados fiables es necesario delimitar un grupo concreto (motivado por un interés o actividad común) y no muy numeroso para su estudio, enmarcado en un período cronológico definido y limitado, y que pueda ser estudiado con fuentes accesibles y complementarias”* (Casáls, 2014, 13). Lan honen kasuan, azterketa ETaren garai zehatz batera mugatu da, eta taldea 7 pertsonara.

Ikerketari ekiteko, fitxa biografiko propio bat egin ohi da. Kasu honetan hiztegi biografiko ezberdinetan erabilitako egitura hartu da erreferentetzat (Agirrezkuenaga, *et alii*, 1993), baina beharrezko aldaketak egin eta lan honen ezaugarrietara moldaturik. Pertsonaia bakoitzaren inguruan bilatu den informazioa eta sailkapena ere era sistematizatuan eta aurrez diseinatua izan da, pertsonalismoak, norbaiten protagonismoan desorekak, zein ondo zehaztu gabeko helburuen eraginez ondorio nahasiak saiheste aldera. Iturriak ere, gehienak aurrez zehaztu dira, fidagarriak eta konparagarriak izan zitezten. Hala ere, aipatzekoa da lan honetan protagonista batzuen gaineko informazio falta izan dela, pertsonaia guztiak ez baitira izan transzendentzia handikotzat hartuak historiografia tradizionalarentzat zein sektore politiko desberdinentzat. Horrek, iturrien egiazkotasuna etengabe zalantzan jartzera behartu du autorea, informazioa kontu handiz hautatuz eta kontrastatuz.

Informazioa bilatzeko orduan prosopografiari zein orokorrean historiografiari eragiten dion faktore argi bat protagonisten maila soziala izan ohi da<sup>3</sup>, honek behera egin ahala, hauen inguruko informazioa ere nabarmen jaisten ohi baita (Stone, 1986, 61-62). Eskuarteko lan hau osatzerakoan ere, iturriei dagokien zailtasunekin jokatu behar izan da etengabe, baina ez nagusiki maila sozialari loturiko arazoengatik, protagonisten jarduera motari lotutako arazoengatik baizik. Klandestinitatean eta delitugintzan aritutako jendea da aztertu dena, eta interbentzio polizialaren beldurrez zein beste arrazoiengatik informazio asko izkutatu izan da urteetan zehar, bai beraien partetik baina baita inguruko partetik ere.

Zentzu horretan, ez dago behar besteko argitasunez etakide bakoitzak egindako ekintza, delitu eta krimenak zeintzuk izan diren, ezta ibilbide militantean zehar izandako traiektoria ere. Hala ere, autobiografietan, memorietan, lehen mailako kontakizunetan, inguruko kontakizunetan, poliziaren ikerketetan, militanteen aipamenetan, eta antzekoetan oinarriturik badira idatzi izan diren testuak, eta hauek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatu dira. Datu askotan kontraesankorrak ageri dira ordea, hala nola, “Pertur”-en heriotzari lotuta (Alonso, 2017), eta argitu gabeko krimenak ere mordoxka dira. Iturri zuzenetan, zein historiko eta biografikoetan krimen asko ez dira kontatzen edo azaltzen, eta horrek asko zaildu du ikerketa. Autorea kontziente da delitu eta krimen guztiak ikertu eta argitaratzearen beharraz, baina GRAL batek eskatzen dituen ezaugarriek ez dute ahalbidetzen egindakoa baino ikerketa sakonagorik egiten.

## 4. TALDEAREN HAUTAKETA ETA PARAMETRO ANALITIKOAK

Frankismo garaiko ETako buruzagitza lanetan aritutako 7 pertsonako multzoak osatzen du lanaren sostengu nagusia: Jose Luis Alvarez Enparantza *Txilardegi*, Fracisco Patxi Iturrioz Herrero, Emilio Lopez Adan *Beltza*, Javier *Txabi* Etxebarrieta Ortiz, Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur*, Juan Jose Etxabe, eta Jose Miguel Beñaran Ordeñana *Argala* dira landu diren 7ak<sup>4</sup>. ETari dagokion lan prosopografiko sendo bat egin nahi izan ezker, eta honen

---

<sup>3</sup> Stoneren arabera, prosopografía bera bitan banatu daiteke. Batetik *elitista*, nahiko talde txikia hartzen dutenak, orokorrean gizarte bakoitzeko eliteak, hauek baitira “mundua birarazten dutenak”. Bestetik masa handietara bideratua, estadistikan oinarritua eta zientzia sozialetan inspiratua. (Stone, 1986, 62-68.orr.)

<sup>4</sup> Zerrenda honetan sartu zitezkeen gainontzeko pertsonaiak ere asko dira, baina lanaren nolakotasunak batzuk kanporatzerara behartu du eta guzti horietatik 7 lehenestera. Alboratutako batzuk hauek dira: Xabier Zumalde *El Cabra* (gerrilaren aldeko “erromantikoa”), Benito del Valle (“etnolinguista”), Julen Madariaga



fruitu guztiak zukutu, taldea zabalagoa izan beharko litzateke, baina, Gradu Amaierako Lan baterako nahikotzat ikusten da zazpiko talde hau, ideia orokor bat ateratzeko baliagarritzat iritzita. Noski, muga geografikoak ETAk beretzat aldarrikatu izan dituen lurretara mugatu dira: Euskal Herriko zazpi probintziak.

Tarte kronologikoari dagokionez 1959-1975eko tarte hartu da. Alde batetik, 1959. urtean egin zen ETA publiko, nahiz eta Ekin bezalako aurrekariak izan zituen. Bestetik, 1975ko urtea jarri da, Franko diktadorearen heriotzaren urtea, hau Frankismoaren amaiera bezala eta Trantsizio Demokratikoari sarrera ematen dion urte bezala kokatuz. Jakina da ETAREN historia ez dela urte hauetara mugatzen<sup>5</sup>, baina lan honen aukeretarako, gehiago luzatzeak, prosopografiaren eraginkortasuna eta aplikagarritasuna zalantzan jarriko luke.

Aipaturiko pertsonaien hautaketan erabilitako irizpideei dagokionez, hiru izan dira bereziki garrantzitsuak: Zuzendaritzako kide izatea, zehaztutako tarte kronologikoan ahalik eta urte-tarte gehien barne biltzea, eta aniztasun ideologikoa bermatzea. Lehenik, Frankismoko ETA ezberdinetan<sup>6</sup> zuzendaritzako kide izatea. Baldintza ahalik eta objektiboen mantentze aldera, baieztapen hau iturri ezberdinen bidez baieztatu ahal izatea garrantzitsua da, mitifikazioak saihesteko<sup>7</sup>. Bigarrenik, 15 bat urteko tarte horren barruan ahalik eta espazio kronologiko gehien bete nahi izan da, urte oso gorabeheratsuak izan baitziren bai testuinguruari zein ETARI dagokionez, eta hilabete gutxitan aldaketa nabarmenak jasan ohi zituen organizazioak. Hau da, aipatu garaiaren barruan, ez da utzi nahi izan hautatutako buruzagietako inor zuzendaritza lanetan egon ez den tarterik. Eta azkenik, perfil-aniztasunaren irizpidea dago. Zuzendaritzan egoteaz gain, bakoitzak ETA barruan izandako kokapen ideologikoari, estrategikoari, organizatiboari eta antzekoei dagokienez aniztasuna mantentzen saiatu da, modu horretan, ETAREN monolitismoa babesten eta mitifikazioak bultzatzen dituztenen aurrean ETAREN oinarrien, planteamenduen eta honekiko ikuskeraren interpretagarritasuna

---

(“antikolonialista”), Jose María Eskubi (V. Asanbladako protagonista bat, aktibista iaioa eta ETA-Veko lider argi bat), Mikel Lejarza “*El Lobo* (polizia infiltratua), José Luís Zalbide (Ekintza-Errepresioa-Ekintza espiralaren teoriaren sortzailea), Patxo Unzueta (ETA-VIkoa), Txikia (ETA-mko buruzagia) eta beste horren beste: Txomin Iturbe, Jose Antonio Etxebarrieta, Teo Uriarte, Peixoto, Mario Onaindia,...

<sup>5</sup> Ez soilik ETAREN jardunak 1975etik aurrera jarraitu izanagatik, kontziente da autorea ETAREN sorreratik estrategia eta praktika ez zirela antifrankismora mugatzen. Patxo Unzuetak “euskaraz”: “(...) *late en un plano vital mucho más hondo que el de las instituciones y hombres de la dictadura y desborda la momentaneidad del general Franco*” (Unzueta, 2000, 427-428).

<sup>6</sup> Frankismoan zehar ETA siglekin talde ezberdinak izan ziren eta ezin da ETA bakar batez hitz egin. Besteak beste, ETA Berria eta Zaharra, V.ak eta VI.ak, ETA-PM eta ETA-M,... 1974az aurretiko ETAK aztertzean tradizionalki korrante euskaltzaleenak aztertu izan dira (ETA zaharra, ETA V), eta ez ezkertiarrenak (ETA berri, ETA VI). 1974tik aurrera ETA-Mk hartzen du protagonismo nagusia, eta ez ETA-PMk. (Fernandez, 2012, 38)

<sup>7</sup> Besteak beste, Ezker Abertzalearen orbita ideologikoko Txalaparta argitaletxeko lanetan, Fernandez Soldevilaren, Elorzaren, Jauregiren zein akademiko ezberdinen liburuetan, militante ezberdinen testigantzetan, etab. hautatutako kide guztiak lider edo zuzendaritzako kide izan dira.

eta aldakortasuna babeste aldera. Korrante guztiak barnebiltzea ezinezkoa izanik, nagusiak eta horien ordezkari entzutetsuenak hautatzen saiatu da<sup>8</sup>. Haatik, momentu bakoitzean kide bakoitzaren papera eta posizioa politikoki zein izan zen jakitea ez da lan erraza izan: Organizazioaren gaineko kontrol-borrokak<sup>9</sup>, elkarrekiko desconfiantzak, ezinikusi pertsonalak eta anbizioak ohikoak baitziren (Fernandez, 2012, 25) eta askotan hauek gainjartzen ziren.

Aipatzea, generoari dagokionez ere saiatu dela oreka bat bilatzen emakumezkoen garrantzia ulertu nahian, baina batetik, perfil orokorra gizonezkoa zen, eta bestetik, emakumezko batzuk esanguratsuak izan arren (Aizpurua, Dorronsoro,...), garai honetan zuzendaritza lanetan aritu izanaren ebidentziarik ez da aurkitu. Zuzendaritzako lehen emakumea, ETA-Mko Dolores Gonzalez Katarain *Yoyes* izan zela dirudi, ordurako ordea gainditurik zegoen frankismoa.

Fitxa biografikoari dagokionez, hala nola, armen erabileraren auzia, ekintza zehatzak, euskararen erabilera, babestutako posizio teoriko, ideologiko edo taktikoak, ETA ostean horri buruz garatutako iritzia,... badira zenbait aspektu zehazki kasu honetarako baliagarriak, eta ikerketa hau aurrera eramateko garrantzitsutzat ikusi direnak. Horrenbestez, lanaren egitura eta ikerketa lerroak, erreferentziazko lanekiko zertxobait aldatu dela ikusiko du irakurleak (Carasa, Agirrezkuenaga, Stone, Urquijo,...). Finean, bizi traiektoria; jatorrizko baldintza sozialak, kulturalak eta ekonomikoak; ETako traiektoria eta postuak; garaiko posizio teoriko eta politikoak; eta, ETA osteko militantzia atalak banatu dira.

Datu eta informazio bilketari dagokionez ez da existitzen modu eta iturri printzipal bakar bat prosopografian (Ferrari, 2010, 542-546), eta lan honetan ere iturrien bilketa, hautaketa eta sailkapen lanak egin dira, eta objektibotasun eta fidagarritasunaren bila, iturri bakoitza besteekin kontrastatzeko beharra hasieratik adierazi da. Ezein lan historiografikotan hartu beharreko lana bada ere, biolentzia xede politikoetarako bitarteko legitimotzat izan duen talde baten kasuan bereziki tentuz ibili behar da auziotan, ideologiaren, interes politikoaren, biktimei sortutako minaren, nostalgiaren eta frustrazioaren arteko nahasmenak informazio eta afirmazio nahasiak sortzen baititu sarritan. Are gehiago ETaren kasuan, zeinaren jardun armatua eta terrorista<sup>10</sup> aztertutako urteez gain beste 36 urtez luzatu zen, hots, bere jardunik

---

<sup>8</sup> 60ko hamarkadari lotuta adibidez, joera “*etnonacionalista, tercermundista y obrerista*”, hiruak kontuan hartu dira (Fernandez, 2012, 85), edo ETaren banaketa garrantzitsuenetako batean (ETA-PM eta ETA-M artekoa) bakoitzeko figura esanguratsuak.

<sup>9</sup> Ikusi, besteak beste, V. asanbladaren ateetan izandako kontrol-borrokak: (Garmendia, 2000, 126).

<sup>10</sup> “*Actuación criminal de bandas organizadas, que, reiteradamente y por lo común de modo indiscriminado, pretende crear alarma social con fines políticos*”. “*Terrorismo*”, *Real Academia Española; Asociación de Academias de la Lengua Española* (2019). *Diccionario de la Lengua Española (DLE)* 23.3 bertsio elektronikoa. (2020/V/09an kontsultatua: <https://dle.rae.es/terrorismo?m=form>).

handiena aztertutako denboralditik kanpo egin zuen, eta ez soilik ikuspegi tenporaletik, baita eragindako heriotza eta biktimen aldetik ere (Ceberio, 2018).

Mota askotako informazio iturriak erabili dira. Lan bibliografikoei dagokienez, lehenik, gaiaren inguruan idatzitako liburu historikoak aipatu behar dira<sup>11</sup>. Bigarrenik, zuzenean mundu akademikotik deribatutako lanak. Hirugarrenik, hautatutako pertsonaiaren inguruko lan biografikoak, batez ere biografien osaketetarako *Txabi*, *Txillardegi*, *Pertur* eta *Argalaren* kasuan. Bibliografiaren atalean “Euskadi eta Askatasuna” ETAREN inguruko lan monografikoa aipagarria da, ilustrazioz, biografiez, ekintza eta atxiloketen informazio zehatzez eta elkarrizketez lagundutako lan entziklopedikoa<sup>12</sup>. Bigarren mailako iturriekin bukatzeko, bideo dokumentalak ere erabili direla esan behar da. Lehen mailakoai dagokionez, garaiko egunkari eta errebistetako artikulua, notizia zein entrebistak erabili dira, ETAREN barne dokumentuekin batera<sup>13</sup>. Ezin izan da zuzeneko lehen eskuko adierazpenekin kontaktu ordea, baina horretarako aukera izanez gero lana aberastuko litzateke. Edozein kasutan, iturrien zientifikotasuna eta fidagarritasuna bilatu du autoreak, eta ideologia eta propagandarako erabilitako bitartekoak saihestu.

## 5. TESTUINGURU HISTORIKOA

Lehen atalean helburuak aipaturik, eta azken honetan taldea eta irizpide analitikoak (galderak) zehaztuta, nortzuk, zenbat, zertarako eta nola galderak erantzun direla kontsideratu daiteke, Ferrarirentzat azterketa prosopografiko baterako funtsezko galderak direnak (Ferrari, 2010, 541-542). Baina egindako ikerketa prosopografikoa bere historikotasunean kokatzera begira, zein ETAK eta pertsonaiek izan zezaketen garrantzia eta papera ulertzera begira, ETAREN garai hartako testuinguru historikoa ulertzera beharturik agertzen da bat. Autoreak ez du nahi ETAREN sorrera eta jarduna historiaren fruitu objektibo eta halabeharrezko bezala ulertzerik, aipatu bezala, barne eta kanpo faktoreak kontuan izan behar baitira. Faktoreok

---

<sup>11</sup> Garmendia, Jáuregui, Fernandez Soldevila, Bruni, Unzueta Calleja, Catalán, Lorenzo Espinosa, Gallo, Elorza, Moradiellos, Javato Gonzalez, Bilbao Ariztimuño, de Pablo,... dira, besteak beste, lanaren testuingurua eta ETAREN historia, zein biografiak osatzerakoan erabilitako historialarietako batzuk.

<sup>12</sup> Nuñez, Luis; Egaña, Iñaki; *et alii* (1993). *Euskadi eta askatasuna / Euskal Herria y la libertad*. Tafalla: Txalaparta. Lan hau egiteko erabilitako lanetako bat izan arren, editorialaren kokapen ideologikoaren ondoriozko mitifikazio posibleen aurrean, prebentzio lanak hartu eta auzi delikatuak beste iturri batzuekin alderatu izan ditu autoreak.

<sup>13</sup>Lehen mailako barne dokumentuak arakatu nahi izanez gero, bitarteko erreferentziala: *Documentos Y* (1981). Zarautz: Hordago.

kontuan izanda saiatu da autorea atal hau osatzen, nahi eta behar besteko hedaturaz egiteko aukerarik izan ez arren, ETAREN ibilbidearen errepasso bat egiteaz, beti ere, testuinguru historikoarekin konexioak mantentzen saiatuz.

### 5.1. ETAREN SORRERA ETA LEHEN URTEAK

Lan hau ETAREN sorrera eta lehen hamabost urteko aldian kokatzen da, hau da, Frankismoko ETAREN jardunean, eta horrek, ezinbestean, testuinguru Frankista ulertzera darama. Frankismoak oso baldintza kaxkarrekin pasa bazituen ere bere lehen urteak, baina 40ko hamarkadatik aurrerantzean Euskal Herrian hazkunderako joera bat, eta gune industrializatuenetakoa izanik hazkunderako joera hau mantendu eta handitu egingo zen hurrengo hamarkadan (Catalán, 2010, 197-203). 50eko fase egonkor eta nahiko sendo bezala definitu daiteke erregimenarentzat, izan ere 1945az geroztiko blokeo internazionala leundu zitzaion Espainiari, eta honek berreskurapen ekonomikorako aukerak ireki zitzaizkion, Euskal Herrian nabarmena zena. Estatu ordea ez zen izan gai 1959ko Egonkortze Planera arte aukera hauek esplotatzeko, baina honekin batera “Espainiako historia ekonomiko garaikidean izan den hazkunderik handieneko garaia” zabaldu zen (Catalán, 2010, 205).

Garapen ekonomikoaren arrakastak markatu zuten ondorengo hamarkada, baita Euskal Herrian ere. Garai honetan sakondu zen industrializazio eta fabriken kontzentrazio prozesuak euskaldunen harreman sozial eta espazialak baldintzatu zituen: Polo industrial handiak sortu ziren eta garai hau *Baby boom*-ak, etorkin kopuru handiaren etorrerak, masa kontsumoaren lehen sinboloek, farmakoen sarrera masiboak, hezkuntzaren garapenak eta turismoaren masifikazioak markatutako garaia izan zen, eta bizi-kalitate eta -itxaropenaren igoerak, eta aberastasun sozialaren sorrera masifikatuagoak, klase ertain bat haztea ahalbidetu zuen, baita Segurantza Soziala, medikuntza, eta Estatuaren prestakuntza eta zerbitzu sozialak ere. Euskal Herrian lehen aldiz masa gizartearen elementuak zituen gizarte industrial modernoa, hiritarra eta teknifikatua sortu zen. Guzti honek, ETAREN sorrerarako baldintzak zein lehen urteetako garapenerako elementuak ezarri zituen.

Gizarte-konfigurazioan aldaketak izan ziren, ez soilik aspektu ekonomikoetan, baita sozialetan, kulturaletan zein politikoetan, eta nola ez, gatazkak ere sortu ziren. Estatu mailan, oposizioaren indartze hamarkada izan zen 60koa: ELA, CNT, UGT bezalako sindikatuak berrantolatzen eta lantegi ezberdinetan Langile Komizioak sortzen hasi ziren. Baita alderdi politiko ilegalak ere: PCE, PSOE, EAJ, ERC,... Euskal Herriko langile mugimenduak ere nolabaiteko indarra hartu zuen hamarkada hasieran, hala nola, asturiar mineroekin

elkartasunean edo CAFeko lan baldintzekin lotuta antolatutako grebetan, baina oso erreprimituak izan ziren. Unibertsitateko ikasleen mugimenduak indar handia eta aldarrikapenak politizatzeke joera hartu zuen eta elizaren partetik ere, erregimenarekiko urruntze bat eman zen<sup>14</sup>.

ETAren sorrera eta zabalpena ere, testuinguru honetan kokatu behar da, baina mugimendu nazionalista izaki, euskal nazionalismoaren nondik norakoak ulertzea ere komeni da. Erregimen autoritario gisa<sup>15</sup>, errepresio politikoa ezaugarri garrantzitsua izan zen Frankismoan, eta gerraurreko ideologia nazionalista euskalduneko alderdi eta talde mordoa<sup>16</sup> erreprimituak izan zen. PNV izan zen gaitasun operatiboei dagokionez hobekien mantendu zena, baina Francoren erregimena gainditzeko eta Eusko Jaurlaritza erbestetik bueltatzeko bide modura, Aliatuen eta bereziki AEBen interbentzio posiblean zeuzkan esperantza guztiak jarrita (Gallo, 1971, 177). Nazionalismo moderatu honek ez zituen batez ere gazte belaunaldi berrien eta orokorrean nazionalismo erradikalaren aktibismo nahiak asetzen, eta besteak beste, Ekinen eta geroko ETAren, zein honen inguruko mugimendu abertzalearen sorrerarako elementu garrantzitsua izan zen hau.

50eko gizarte industrial berriak, gazte belaunaldi berri baten existentziak eta aipatu nazionalismoaren egoerak horrenbestez, Espainiaren eta “Euzkadiren” arteko gatazkan azentua jarriko zuen printzipioen berreskurapenerako baldintzak sortu zituen. Horrela sortu zen Ekin taldea 1951 edo 52an. Agirre, del Valle, Garizarain, Madariaga, *Txilardegi* eta abarrek sortu zuten, eta nagusiki formakuntza eta eztabaidarako taldea zen, baina urte gutxitan talde kultural izatetik ekintza politikorako nahia zeukatenean taldea izatera igaro zen. EGIrekiko hurbilpenak ere izan ziren, baina Ekinekoak ez ziren oso pozik alderdiaren jardunarekin, eta 1958an EGI bateratua bitan banatu zen. Ekinen aldeko posizioa mantendu

---

<sup>14</sup> Adibidez, 1961ean Euskal Herriko 339 apaizek sinaturiko manifestua, besteak beste euskalduntasunaren aldeko aldarriekin, edo eliz-gizonen parte hartzea langile eta ikasle protestetan.

<sup>15</sup> Lehen urteetan alemaniar eta bereziki italiar Estatuetan inspiratutako erregimena eraiki zuen generalak, hori dela eta, zenbaitzuek erregimen faxistatzat daukate frankismoa (Moradiellos, 2000, 45). Hala ere, orokorrean faxismoaren, zein zehazki Francoren erregimenaren ezaugarritzearen gaineko eztabaida historiografiko eta politologikoak daude gaur gaurkoz oraindik (Payne, 2017), (Navarro, 2017. D.Olmo, 2013) Eztabaidok saihestera begira erregimen autoritario edo diktadura bezala definituko da gobernu hau.

<sup>16</sup> Jakina denez, ideologia hau ez zen erreprimitua izan zen bakarra, baina lan honen ezaugarriengatik aipagarriena da. Gerraurrean, PNV nagusi izan arren, badira ANV, *Mendigoxaleak* edo talde lokal mordoa, eta interesgarria litzateke autore ezberdinek gerra-aurreko euskal nazionalisten eta ETAren arteko lotura eta eraikitzen duten kate logikoa aztertzea. Lan honetan ETAren eta etakideen sorburu eta garapen ideologiko zein praktikoa nahi eta behar besteko sakon aztertzea ezinezkoa den arren, badira ETA euskal nazionalismoaren joera erradikal eta estremisten barruan kokatzen dutenak; Sabino Aranak sortua, Aberrik, Jagi-Jagik jarraitua, eta ETAk eta “Ezker Abertzaleak” ordezkatutako lerro logiko-ideologikoan. (Fernandez, 2015, 291). Lorenzo Espinosak ere Aberrikoen edo Jagi-Jagiren nazionalismoaren eta ETAren arteko lotura aipatzen du, bereziki tipo berri bateko nazionalismoaren lerro bezala, PNVren nazionalismo arrazista eta erlijiosaren kontrapisu bezala (Lorenzo, 2018, 264)

zutenek 1959ko uztailean Euskadi Ta Askatasuna (ETA) erakundea sortu zuten<sup>17</sup> (Javato, 2011, 143-163).

Ekimen proiektu kulturalistaren ondorengo bezala, azterketa historikoari eta nazionalismoaren azterketari kolpe zion ETAk, eta bide politiko propioetarako zailtasunekin, Sabino Aranaren esentzia fundazionalaren bilaketan aritu ziren. Hasieran mugimendu kultural eta propagandistikoa osatu zuten, EAJrekiko dibergentzia handiegirik gabea, eta ikurrinak, margoketak eta sabotaje txikiak egiten zituzten. Lehen atentatu handi baterako saiakera 1961. urtean egin zuten, gerra zibileko “nazional” beterranoak zeramatzan tren bat deskarrilatzen saiatuz. Gutxika bere izaera definituz joan zen, eta 1962an bere burua “*Movimiento Revolucionario Vasco de Liberación Nacional, creado en la Resistencia patriótica*” bezala definitu zuen. Iraultzailea, nazionalismo intransigentearen ondorengotza jaso, euskal nazioaren berrosatzearen zentzuan erabiltzen zen, oraindik ez zentzu sozio-ekonomikoan. (Javato, 2011, 155-156).

60ko hamarkadan garapen ideologiko esanguratsua bizi izan zuen organizazioak. Langile mugimenduaren eta nazionalismoaren garapenerako baldintzak emanak ziren (Pascual, 1996, 21), eta biziki eragin zuen honek ETAn. 1962ko greba mugimenduetan langile mugimenduaren erresistentzia gaitasuna ikusi zen, eta mugimendu horretara hurbiltzeko beharra zegoen. Hala ere, ez zen bide erreza izan, eta barne gatazka handiak izan ziren. Orduko obra nagusia Krutwig-en *Vasconia* (Krutwig, 1963) izan zen, nazionalismoen printzipioen berritzea baitzekarren, teoria marxistetara hurbilduta, baina hirugarren munduko nazionalismo antikolonial bat planteatuz (*tercermundista*) (Javato, 2011, 156-158).

Teoria *tercermundista* hauek 60ko hamarkadan zehar garatuz joan ziren, hala nola II, III, eta IV. biltzarretan, teoria honen egokitzapen teorikoak zein praktikoak eginez. Borroka metodologia bezala ekintza-errepresioa-ekintza (*acción-represión-acción*) espiral estrategikoa onartu zen<sup>18</sup>, nahiz eta ez zegoen funtsik hura sostengatzeko nahikoa (Bruni, 1987, 64), eta barne antolakuntzari dagokionez aurrerapausoak eman ziren. Hala ere, garai honetan etorkizuneko zatiketetako batzuk eragingo zituzten joerak argitzen hasi ziren, nagusiki *obreristak*, *tercermundistak*, eta *etnolinguistak*.

---

<sup>17</sup> Autore ezberdinek ETaren sorrerako urtean ezberdintasunak izan ohi dituzte: 1957an (Garralda, 165), 1958an (Fernandez, 2015, 26) edo 1959an (Javato, 2011, 153). Hala ere, lan honetan ez du garrantzia berezirik sorrerako dataren zehaztasunak behin urte horien testuinguru orokorra konprenitu ezker.

<sup>18</sup> Espiral formako indar akumulaziorako printzipio estrategikoa izan zen, ETaren arrakastaren gakoetako bat. Teoria hau Manzanasen hilketatik aurrera jarri zen egiazki martxan (Bilbao, 2006, 35-36).

Joera berri hauek V. biltzarrean lehertu ziren. Sortu berri zen “barnealdeko” lidergo berriak (Bulego Politikoa) sozialismoaren eta langile borrokaren aldeko edukiak zabaldu zituen, baita ordura arteko “printzipio chauvinistekin talkan zeudenak” ere. Baziren ordea joera berri hauekiko aurkaritzan zirenak, *tercermundistak* eta *etnolinguistak*, eta asanblada berri bat eskatzen zuten. Hala burutu zen, 1966 eta 1967 urteen artean V. biltzarra, ondorio bezala zatiketa esanguratsuak ekarriz organizazioan. *Obreristak* kanporatuta<sup>19</sup>, V. Biltzarraren 2. Zatian *Tercermundistak* eta *Kulturalistak* edo *Etnolinguistak* (Txilardegi, Benito del Valle,..) gelditu ziren, baina azken hauetako askok, bere posizioen galera ikusita, dimisioa aurkeztu zuten (Jáuregui, 2000, 239-243).

Posizio nazionalistak unibertsalismo marxistaren gainetik inposatu ziren, baina nazionalismo honi eduki sozial mordoa sartu zitzaion eta nolabait euskal nazionalismo tradizionalarekin apurtu zuten. Jakina denez, jardun armatuaren beharrezkotasuna onartu eta ekintza-errepresioa-ekintza eskema beste edozein erresistentzia formarekiko gainjarri zen (Javato, 2011, 161)<sup>20</sup>. Antolakuntza ere asko garatu zen; fronte politikoa, militarra, kulturala eta ekonomikoa banatuz, eta Komite Exekutiboa eta Biltzar Ttipia sortuz (Garmendia, 2000, 135).

60ko hamarkada lantzean, ezin dezakegu aipatu gabe utzi garai honetan sortutako mugimendu kulturala. Kultur munduari lotutako adierazpenak asko zabaldu ziren, euskal kulturaren loratze bat ekarriz: ikastolak, musikariak, margolari zein eskultoreak, euskararen zabalpena eta batuaren sorrera, produkzio literarioa etab. Adierazpen guzti hauek mugimendu nazionalistaren elementu ezinbestekoak izan ziren, eta ETAk ere horrela ulertu zuen, inguru hauetan lan egiteari garrantzia handia ematen baitzion, eta horren erakusgarri dugu fronte kultural bat sortu izana.

Dena den, 60ko bukaera urteak oso gogorak izan ziren. Hala nola, 1968an lehen aldiz hil zuen ETAk: J. Pardines Guardia Zibila. *Txabi* Etxebarrieta ere hila suertatu zen, eta handik gutxira ETAk M. Manzanos polizia eta torturazalea hil zuen (Iglesias, 2001). Gertaera hauek sinbolismo izugarria hartu zuten segidan, baina urte honetan 434 atxilotu, 189 espetxeratu eta hainbat torturatu izan ziren (Bilbao, 2006, 64), eta adibidez CESED sortu zen, errepresioa

---

<sup>19</sup> Kanporatu hauek ETA *Berri* sortu zuten, gainontzeko ETako sektoreak ETA *Zaharra* izena eskuratuz. ETA *Berriak*, Komunistak izena hartu zuen 1969an, eta 1972an MCE-EMKri (Euskadiko Mugimendu Komunista) sorrera eman zion, eta Estatu mailako MC (*Movimiento Comunista*) antolatzen aritu zen (Bilbao, 2006, 61-66).

<sup>20</sup> Gainontzeko fronteetako lana ez zen bertan behera utzi ordea. 1960ko hamarkadan euskal kulturaren ezohiko zabalpena eman zen adibidez, euskal udaberria bezala ezagututako fenomenoak, eta ETAk mugimendu hauetan parte hartu ohi zuen, “eraberritze nazionalista” eta “kontzientziazio funtzio garrantzitsua” betetzen zuelakoan. (Nuñez; Egaña; *et alii*, 1993, 2.T. 11-21.orr.)

eraginkortzeko asmoz. *Acción-Represión-Acción* eskema estrategikoa martxan zen. 68ko gazte belaunaldi europarren mugimenduaren gainbeheraren ostean (Paris, Italia, Praga,...) iraultzaile frustratu askok jo zuen ezaugarri hauetako jardun militar edo terroristetara Europa mailan (RAF, PIRA, BR,..), bolada terrorista berri bati hasiera emanez. ETA, noski, hemen txertatzen da (Jáuregui, 1985, 411-459).

Urte hauetan inoiz baino atxiloketa eta tortura gehiago, Basauriko kartzelatik ihesaldia, ETako zuzendaritza desartikulatua, EGiko sektore baten hurbilpena eta EGI Batasunaren sorrera (1972an ETAn integratuko zena), ekintza armatuak, etab. izan ziren. Bererekiko atxikimendua handitu bazen ere, 1970eko hamarkadari hasiera oso ahulduta emango zion ETak, antolakuntza markoak txikituta bait zeuzkan. 1969an adibidez, aurreko urtearekin alderatuta ia 5 aldiz atxiloketa gehiago izan ziren. 1970ean ezin aipatu gabe utzi Burgosko Prozesua deritzona<sup>21</sup>, greba, protesta, eraso, bahiketa, manifestazio edo salbuespen-egoerak, zein maila internazionalako protesta handiak medio, Erregimenak epaiketako elementu asko atzera bota zituen, eta prozesua, ETarentzako, garaipen batez gain, lau haizetara zabaltzeko baliagarria izan zen (Uribe, 1979).

Egoera kritikoa, zuzendaritza txiki probisional bat sortu zen, eta VI. Biltzarra deitu zuen, baina honek, joera ezberdinak batu ordez, gatazkak azaleratu zituen; hala nola, *Miliak, tercermundistak*, VI. Asanbladako zuzendaritza, eta Zelula Gorriak. Zelula Gorriek Fronte Nazionala zein armen erabilera ukatzen zuten, eta organizazioa utzi zuten. Ondoren, asanbladaren legitimotasuna onartzen zutenen eta ez zutenen arteko apurketa eman zen: Lehenek (orduko zuzendaritza) ETA-VI<sup>22</sup> izena jaso zuten, posizio *obreristak* zeuzkaten, eta militantziaren gehiengoaren babesa, tartean “Burgosko” presoena. Bigarrenek ETA-V. *Tercermundistek* eta *miliak* osatzen zuten.

ETA-Vk, egindako VI. Biltzarrari ofizialtasunik onartu ez eta bide propioa burutu zuen. 1972 eta 1973 urteen artean, aurrekaririk gabeko era militarreko aktibismoari ekin zion: atentatuak, lapurretak, bahiketak, lerro propioko zein kanpoko heriotzak tartean. Jardun honek inguru abertzaleen erreferentzia lortu eta abangoardia funtzioak betetzeaz gain (Lopez, 2012, 133-

---

<sup>21</sup> Burgosko Prozesua, 1970an ETA guztiz ahuldurik zegoen testuinguruan irekitako epaiketa prozesuari deitzen zaio. Bertan ETako kideak eta M. Manzanasen hilketak egotzirik, zigor gogor eta ereduak ezarri nahi izan zizkien gobernuak 16 militanteri, baina, Vatikanoa zein Estatu ezberdinak tarteko, eta bereziki Estatu mailan zein gainontzeko herrialdeetan izandako protesten ondorioz zigorrak (heriotza zigorrak, etab.) txikitu ziren. Seguraski Frankismoak ETari kolpe definitiboa emateko asmoa izan arren, lortutako ondorioa justu kontrakoak izan zen; ETA indartzea. Besteak beste, gobernuaren eta Elizaren arteko harremana ere trakestu zen.

<sup>22</sup> ETA-VIk ez zuen askorik iraun: 1971n zuzendaritza atxilotu zuten, eta VI. Asanbladaren 2. aldean *mayo* eta *mino*en arteko banaketa eman zen. Lehen hauek LCRrekin (Liga Comunista Revolucionaria) bat egin zuten. Bigarrenen artean aldiz bide oso desberdinak jorratu zituzten: PCE-EPK, militantzia utzi, ETA-V, etab.



134), fronte militarra gainontzekoekiko gainjarri eta elementu aglutinatzaile bilakatzea ekarri zuen (Jáuregui, 2000, 262). Langile frontearen salbuespenarekin ordea, Carrero Blancoren kontrako atentatua bera ere ez baitzuten begi onez ikusi, eta fronte militarrekiko desadostasunek fronte honen gehiengoak ETA utzi eta LAIA sortzea ekarri zuen. Ez hori bakarrik, 1974ko Rolando kafetegiko atentatuaren ostean<sup>23</sup> erakundea utzi eta modu autonomoan jarduten hasi ziren fronte militarreko zenbait kide. ETA-M deituko ziren horiek, gainontzekoak ETA-PM.

Poli-miliek, banaketa eman eta segidako hilabeteak jardun militar gogor eta biziz hasi zituzten, baina errepresioak ere neurri berean eragin zien, komando asko desartikulatuz (Casanova; Asensio, 2006, 214-218). Prozesu honetan zedarri “*El Lobo*”-ren infiltrazioak ahalbidetutako ehundik gorako atxiloketak izan ziren, tartean arduradunak eta *Txiki*: Otaegi eta FRAPeko hiru militanterekin batera, frankismoko azken fusilatuetako bat<sup>24</sup>. Milientzat ordea garaian borborrean zegoen euskal independentismoaren erreferentzia nagusi bilakatzeko aukera izan zen, izan ere, artikulazio, eta formakuntza militarreko barne prozesu luze batek, martxa eta indar militar handiz jardutea ahalbidetu zien. Denboraren poderioz, ETA-PMk disoluzioan bukatuko zuen prozesua jarraitu zuen (Muro, 2004, 157), ETA-Mk berriz jarduera militarra mantendu eta joera terrorista hartu zuen (Fernandez, 2012, 25), amalgama abertzale zabal baten erreferentzia nagusi bihurtuz. Sorrerako ETA izen soila berreskuratu zuen, eta demokrazia garaian ezagutu izan den ETA da.

## 6. IKERKETA PROSOPOGRAFIKOAREN EMAITZAK

Eskuarteko lanaren nondik norako nagusiak aurkeztuta, hots, lanaren helburuak, metodologiaren azalpena eta ikertutako objektuaren testuinguru historiko orokorreko atalak eginda, ikerketaren muinean sartu daiteke jada. Ikerketa prozesua ordenatu den modu berean,

---

<sup>23</sup> Erakundearen lehen atentatu masiboa izan zen, 12 zibil hilda suertatuz eta zauritu mordoa. Madrileko Correo kalean izan zen, polizia maiz ibili ohi zen Rolando kafeterian. Atentatu honen ostean, aldarrikatu behar ote zen ala ez eztabaidatzeak, aurretik ETAn zeuden eztabaidak areagotu zituen, organizazioa zatituz. (Casanova; Asensio, 2006, 188).

<sup>24</sup> Frankismo hilkorra ez zen permisiboa oposizioarekiko, are gutxiago jardun militarra eta terrorista zerabiltenekiko, eta “Caudilloak” azken egunera arte jarrera autoritario eta intrantsigentea mantendu zuen. Poliziaren eta etakideen arteko liskarrak ohikoak ziren, atxiloketak eta torturak ez ziren gutxitu, baina bereziki aipagarriak 1975eko irailaren 27ko fusilamendu hauek dira. FRAPeko hiru eta ETA (pm)ko kide bi hil zituzten. Zigor hauen aurkako protesta ta mobilizazio andana izan ziren, baina Burgosko Prozesuan ez bezala, exekutatua izan ziren. Gertaera hauek erakusten digute zein gatazkatsua izan zen frankismoaren bukaera eta trantsizio demokratikoa ere ez zela baketuagoa izan (Nuñez; Egaña; *et alii*, 1993, 4.T.).

eta atal berberak errespetatuz aurkeztu dira honen ondorioak ere. Bost atal nagusitan banatu da: Bizi traiektoria; Jatorrizko baldintza sozialak, kulturalak eta ekonomikoak; Traiektoria eta postuak; Garaiko posizio teoriko eta politikoak; eta, ETA osteko militantzia. Bakoitza bere azpiataletan banatzen delarik. Hemen aurkeztutakoa ez da burututako ikerketa bere osotasunean, baizik eta ikerketa horren emaitza nagusiak eta autoreak emaitza horietatik ateratako ondorio batzuk. Azken ondorioen atalean ondorio orokorrak aurkeztuko badira, atal honetan bakoitzari dagozkion ondorio batzuk jarri dira. Esan beharra dago atal bakoitza hautatzearen zergatia, ideia nagusiak, hasierako helburuak eta gisa honetako beste azalpen batzuk eman direla ikerketaren emaitza nagusiak azaldu aurretik, emaitzok zein ondorioak taxuz konprenitu ditzan irakurleak.

## 6.1. BIZI TRAIIEKTORIA

Atal honetan, etakideen bizi-traiektoriako ezaugarri nagusiak aztertu dira, jaiotza, heriotza, lana, eta familiari lotutakoak batik bat. Hautatutako pertsonaien bizitzaren gaineko jakintza orokor bat eskuratzea izan da helburua.

Jaiotza urteen aldetik, ez dago alterazio handirik. Gehiengoa 1937 eta 1950 urteen artean jaiotzen, bereziki azken sei urteetan: *Txabi* 1944, *Beltza* 1946, *Argala* 1949, eta *Pertur* 1950; eta 1937 eta 1938an Iturrioz eta Etxabe hurrenez hurren, baina aipagarria dugu *Txillardegia*, izan ere, bera da jaiotza-tartea 1929ra zabaltzen duena. Heriotzari dagokionez ordea, askoz gorabeheratsuago suertatzen da. Hautatutako taldeko zati handi bat oso gazte hil zen, eta honek bizi esperantza nahiko baxua izatea dakar (bataz bestekoak ez du 50 urteko adina gainditzen). Aipagarria da, nola ez, gazte hildako horietatik *Txabi*, *Argala*, eta *Pertur* zuzenean ETako militantzia zela medio hil izana. Azken horren heriotza guztiz argitu gabe dagoen arren, hiruak polizia, talde parapolizial edo armatuek erailak suertatu ziren.

Jaioterriari dagokienez, gehienak Gipuzkoan jaiotak izan zirela ikus daiteke. Donostiak aztertutakoetatik hiru eman zituen (*Pertur*, *Txillardegia*, Iturrioz), eta besteak Arrasate (Etxabe), Gasteiz (*Beltza*), Arrigorriaga (*Argala*) edo Bilbokoak (*Txabi*) ziren. Nafarrik edo Ipar Euskal Herrikerik ez dago. Honekin, hala nola, Euskal Herria zazpi probintziaz osatzen zela aldarrikatu arren, bakoitzean baldintza eta errealitate oso ezberdinak zeudela ondorioztatu daiteke.

Jaioterriaz gain, bakoitzak bizitzan zehar izandako bizitokien jarraipena ere egin da, eta argi ikusi da bizitokien aldaketa nagusienak bereziki ETako militantziaren beharrei zein honen

ondorioei erantzuten zuela. ETAren jardunak etakideak klandestinitatean ibiltzera eta ezkutuan aritzera bultzatzen zituen, eta ohikoak ziren horren ondoriozko leku aldaketak: Belgika, Paris, eta beste, baina bereziki aipagarria Ipar Euskal Herria da, ia segurtasun osoz aztertutako kasu guztiek egin baitzuten egonaldiren bat ala beste lurralde honetan. Nola ez, ETAren behar eta nahiei erantzuten zien betebeharren bat edo besterako (ekintza armatuen prestaketa edo ondorengo ihesaldiak, bilerak, informazio bilaketak,...) klandestinitate osoan pasatako garaietan leku-aldatze eta bizitoki tenporal ezberdinetan egin beharko zituzten egonaldiak, baina guzti hauek bilatzea ezinezko bilakatu da jada.

Ikasketei eta lanbideei dagokienez, gehiengoak goi mailako ikasketak egin zituela ikusi da, edo gutxienez hasi zituela, nahiz eta adibidez *Argalak* Ingeniaritzako ikasketak bigarren urterako albo batera utzi egin zituen. *Txabi* eta *Perturrek* adibidez, zientzia ekonomikoak ikasi zituzten, *Beltzak* medikuntza, baina ikastunena *Txilardegi* izan zen: Ingeniaritza zein linguistikako ikasketak egin zituen, eta azken arlo horri lotuta espezializatu zen, irakasle, ikertzaile, eta Euskaltzain lanak eginez. Bestalde Juan Jose Etxabek Lanbide Eskolan ajustadore ikasi zuen, eta siderometalurgiako langilea eta tabernaria izan zen gero, baina gainontzekoek lanbide liberalak bete zituzten ETAko militantzia ostean: irakasleak, idazleak, politikoak, medikua,...

ETAko militantzia adinari dagokionez, jaiotza urteak, eta aztergai ditugun urteak kontuan izanda, logikoa da kointzidentzia argia izatea. Kasu gutxitan eta oso kopuru txikietan gainditzen da hogeita-piko urteetan militatu izana, berriz ere, disonantzia argi batekin; *Txilardegi*, 30 eta 37 urteen bitartean militatu baitzuen. Besteei dagokienez: Iturrioz 22-31, *Beltza* 17-28, Etxabe 21-32, *Txabi* 18-23, *Pertur* 22/23-26, eta *Argala* 18-28ko adin tartean izan ziren ETAren parte. Militantzia adin-tarteari begiratuta, militantziaren beraren ezaugarriekin lotura zuzena zuela ondorioztatzera eraman dezake bat, izan ere, jardun gogor, aktibista, eta emozionalki fuertea izateak militanteari ezaugarri biologiko zein sozial batzuk eskatzen dizkio, gazteengan aurki daitezkeenak nagusiki, nahiz eta beste faktore asko ere sartzen ziren tartean: testuinguru historikoa, bizipenak, inguru soziala...

Bukatzeko, eta labur-labur, bizitzan zehar etakide bakoitzaren ekarpen artistiko, teoriko, kultural edo literarioa zein izan den arakatu da. Askok, harreman intimo, pertsonal edo lagunartekoa izan dute kulturarekin gazte-gaztetatik: *Txabiren* poemak (Lorenzo, 1996), *Argalak* nerabezaroan idatzitako poemak (Aizpurua, 2018, 22), *Perturren* gaztetako “Los Amis” pop taldea (Fernandez, 2013),... Gehienek ETAko panfleto, dokumentu, proposamen eta lan ideologikoen osaeran ekarpen nabariak egin zituzten (jakin izan denez, Etxaberen

salbuespenarekin, inoiz ez baitzuen lan ideologiko sendorik egin, eta “erresistente” bezala baitzeukan bere burua (Nuñez; Egaña; *et alii*, 1993, 2.T., 214)), eta militantzia bolada honen ostean ere, zenbaitek lan ideologikoan jarraitu izan du<sup>25</sup>. Ezin aipatu gabe utzi, zeregin politikoetatik aparte eta seguraski beste interes batzuei erantzunez argitaratutako lan literario, linguistiko eta historiko andana, hala nola, *Txilardegi*<sup>26</sup> eta *Beltzaren*<sup>27</sup> eskutik. Hala beraz, produkzio ideologiko eta kulturaleri, zein kasuren batean akademian eta ikerketetan egindako ekarpenei dagokionez, ikertutako etakideen jarduna nahiko zabala izan dela esan daiteke.

## 6.2. JATORRIZKO BALDINTZA SOZIAL, KULTURAL ETA EKONOMIKOAK

Atal honetan etakideen bizitzako lehen urteak ikertu dira, eta batez ere garai horretako familia-giroa, bakoitzaren maila-soziala, zein lagunarteko ingurua aztertzea garrantzitsutzat jo da, besteak beste, horrek militantzia jarreretan zein postulatu politikoetan eraginik izan zezakeen ikusteko. Atal bakoitzari lotuta gertaera edo momentu esanguratsuak bilatzen saiatu da, protagonista bakoitzaren kontzientzia eta pentsamoldearen jatorri posibleak ikertzera begira.

### 6.2.1. MAILA SOZIALA

Maila soziala pertsona edo familia baten posizio ekonomikoak zehazten du (soldata, eros-ahalmena,..), baina bizimoduak, kokapen geografikoak, generoak, edo harreman-zirkuituek ere maila sozialaren zehaztapen soziologikoan eragin ohi dute. Eskuarteko lan honi dagokionez, kasu batzuetan gaitasun ekonomikoei dagokion informazio zehatz eta espezifikoa lortzea zaila izan da, baina beste elementu batzuen bidez (testuinguru historikoa, bizitokia, anekdotak, ikasketak,..) deduzitua izan da. Maila sozialaren azterketa elementu

---

<sup>25</sup> Egindako argitalpenei dagokionez, bi dira bereziki aipagarriak (*Beltza*, eta *Txilardegi*), hala ere, horrekin ez da ukatzen, adibidez Patxi Iturriozek, EMKn, MCn, EEn edo PSEn barne mailan eragiteko eta linea ideologikoak markatzeko zeukan gaitasuna.

Beltzaren kasuan: *El nacionalismo vasco (1876-1936)* (1974), *El Nacionalismo vasco y clases sociales* (1976), edo *Terrorismoa eta biolentzia iraultzailea* (1998), dira bere lan esanguratsuetako batzuk. Horiez eta gainontzeko obrez gain, entrebista, artikulua eta hitzaldiak eman izan ditu. *ETAren estrategia armatuaren historiaz* (Baiona: Maiatz, 2012) *Beltzaren* artikuluen bilduma. *Klase eta alderdiaren inguruan, 1970-1980 urte bitarteko eztabaidak Ezker Abertzalean* hitzaldia (2019/II/27, Leioa), etab. (Inguma datu basean *Beltzaren* izenean 71 dokumentu aurki daitezke (2020/V/04an kontsultatua): <https://www.inguma.eus/bilatu?bilaketa=emilio+lopez&Bilatu=Bilatu>).

*Txilardegiren* kasuan: *Hizkuntza eta pentsakera* (1972), *Euskal kulturaren zapalketa. 1956-1981* (1984), *Euskal Herria en el horizonte* (1997), eta abar. (Alvarez Enparantzaren izenean 131 emaitza Inguma datu basean (2020/V/04an kontsultatua): <https://www.inguma.eus/bilatu?bilaketa=alvarez+enparantza>)

<sup>26</sup> *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Putzu* (1999) nobelak, edo euskal gramatika, fonetika edo dielektologiari buruzko lan andana, besteak beste.

<sup>27</sup> Hala nola, *Zazpigarren alaba* (1984) ipuin sorta, edo *Bortu goretan lainope* (1982) liburua.

garrantzitsua dela deritzo autoreak, horren zehaztapenak, edo perfil orokor bat izateak, ETAk izan zezakeen eragin esparrua (militantzia berriaren atzipena,...), aktuazio subjektu orokorra eta perfil militantea (ikasketak, lanbidea, bizi maila,...) identifikatzeko balio dezake eta.

Gerraostetik berreskurapena erlatiboki azkar hasi zen, eta laster, gunee industrialak sortzen eta handitzen joan ziren. Horrek aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoak eragin zituen; etorkinen etorrera, kontsumo eta bizi ohituren aldaketak, hizkuntzan aldaketak, eta, nola ez, maila sozial ertaineko sektore zabal baten sorrera. Ikusi dugun bezala, aztergai ditugun pertsonaiak industrialak diren edo industrializazio bidean diren guneeetatik datoz bereziki. Hala ere, perfil orokorra ez da Euskal Herritik kanpotiko etorkinena (familia euskaldunak dira gehienak), eta maila sozialari dagokionez ere nahiko bizi-maila erosoan hezitakoak izan zirela esan daiteke.

“*La base social de ETA hasta la década de los 70 procedía de las clases medias.*” (Dominguez, 1998, kontrazala). Ikerketa honetan erakusten denez, oinarri sozialaz gain, militantziaren gehiengoa ere klase ertainak osatzen zuen. Horren erakusgarrietako bat, adibidez, 1. atalean ikusitako ikasketak izan daitezke, garai hartan ez baitzuen edozeinek goimailako ikasketak burutzeko aukerarik. Administrazioako langileak, 2. sektoreko enpresa txikietakoak,... ziren protagonisten guraso asko, eta *Txilardegi*, *Argala* eta *Pertur* burgesiaren eta burgesia-txikiaren parte ere kontsidera daitezke<sup>28</sup>, enpresen jabeedunen familietatik zetozen eta. Maila sozial eta bizi-baldintzok inguru sozial bat, gaitasun intelektual bat, sozializazio zirkuitu batzuk, edota eros ahalmen bat, inplikatzeko dituzten potentzian, eta horrek, 2.3 puntuan ikusiko den bezala, ETAn ibilbidea determinatuko duten inplikazioak dauzka.

### 6.2.2. FAMILIA

Atal honetan familien traiektoria, eta familien bidez emandako politiziaziorako aukerak aztertzen saiatu da. Ikusiko den bezala, auzi politikoekiko grina eta ETAn integratzeko hautua orokorrean nahi nazionalista batetik sortua izan zen, gutxienez aztertutako pertsonetan. Hau da, batez ere interes nazionalista euskaldunak bultzatu izan zituen kideok ETAn sartzera, eta nazionalismoari kalitate eta bereizgarri gehiago edo gutxiago gehitu izan zitzaizkion kasuan

---

<sup>28</sup> *Argalaren* kasuan, ama jatorriz baserritarra eta *femme de menage* (neskamea) izana, eta aita arotzeria enpresa txiki bateko jabea bazen ere, loteria bidez lortutako diruarekin eraikuntza enpresa bat sortu zuen aitak, horregatik jo dugu burges txiki familiazat (Casanova eta Asensio, 2006, 36-39). Dena dela, gizarte-estratifikazioa definitzeraz begira irizpide objektibo, argi eta zehatzak finkatzea zaila eta problematikoa denez, zehaztapen arazoak suertatzea ohikoa da. *Perturren* kasuan esaterako, G. Fernandezek arabera “klase ertaineko” familia jatorria luke (Fernandez 2012, 113), baina Mertxe Aizpuruak familia burges gisa hartzen du (Nuñez; Egaña; *et alii*, 1993, 4.T., 238). Edozein kasutan, kategorizazio arazoa litzateke, ez hainbeste bizi mailaren (eros ahalmena, lanpostuak,...) gaineko duda.

kasu. Izaera hori familien osaeretan ere irudikatzen da, izan ere, etxean giro kontzienteki politizatua izandakoek, batez ere herentzia nazionalista jaso izan zuten. Horrek ez du esan nahi ordea kide gehienek etxeko instrukzio politiko zuzenik jaso zutenik. Are gehiago, beste garai batzuetan frankismoarekiko aurkaritzan kokatu izan ziren familia askok, izaera politiko hau ukatu egin zuen, seguraski errepresioaren beldurrez. Hori horrela, errez uler daiteke aztertutakoen erdiak-edo ez jaso izana gurasoen aldetik inolako herentzia politiko markaturik, ez behintzat kontzienteki.

Hala ere, herentzia politiko zuzena jaso zutenek, herentzia hori batez ere nazionalista zen. *Argalaren* kasuan nahiko eragin nabaria izan zen gurasoen partetik, aita PNVren jarraitzailea zen, eta gainera SESBen mireslea, baina bere egunerokotasuneko ezinegon eta kexa ekonomikoek ere, “auzi sozialekiko” “kontzientzia garatzen” lagundu zioten Beñarani (Beñarani, 1977). *Beltzak* zein Etxabek ere, hezkuntza euskaltzalea jaso zuten etxean, eta *Perturren* etxean ere, “ezkutuko alderdien jarduna eta oposizioko kultura bat irabazi nahi zuenarentzat ezin aproposagoa” zen giroa (Nuñez; Egaña; *et alii*, 1993, 4.T., 238). Baditugu bestalde, Iturrioz eta *Txillardegik*, gurasoen partetik politizazio saiakerarik jaso ez zutenak (nahiz eta azken honengan familiak eragin handia izan zuen<sup>29</sup>). Azkenik, *Txabiren* kasua aipatu behar dugu. Honen aitak bere jatorri nazionalistak baztertu egin zituen, eta amak idea monarkikoak zituen, baina familian bazuen Jose Antonio anaia, influentzia nazionalista argia izan zena, eta besteak beste, 1960an berau EGiko kide izateagatik atxilotu eta torturatua izanak eragin nabaria izan zuen *Txabirengan*. Instrukzio politiko zuzenaren ebidentziarik izan gabe ere, familiak politizazio bidean eragin nabaria izan zuen militante hauengan.

### 6.2.3. INGURU SOZIALA

Pertsona baten bizi-traiektorian, nortasunaren garapenean eta jokamoldeetan familiaz gain, gainontzeko sozializazio esparruak ere paper determinantea daukate. Lagunartea eta inguru sozialaren atal honetan familiaz haragoko sozializazio esparruak sartu dira (eskola, lagunartea, gatazkak,...), beti ere pertsona politizatzeraz edo etakide izatera bultzatu zezaketen elementuak hautatuz. Inguru soziala funtsezkoa izan ohi da, bistan denez, inguru hori bera baita inguru politizatu bat izatea ahalbidetzen duena, lan politikorako grina piztuz eta lan hori erraztuz (edo ez), edo talde politikoekin kontaktuak ahalbidetu eta hauetan integratzeko aukera emanez (edo ez). Ikertu diren pertsonaien kasuan, nola ez, elementu printzipala izan

---

<sup>29</sup> *Txillardegik*, berak ikasi aurretik ere egunero entzuten zuen euskara, beraz zuzenean gurasoek saiakerarik egin ez arren, familiak eragin handia izan zuen bere “kontzientziazioan”. Bere hitzetan, “arrotz sentitzen” baitzen euskara ez zekiela. (*Txillardegiren Klika*. 21. Korrikarako egindako dokumentala. Eta, [Ahotsak.eus](https://ahotsak.eus) Jose Luis Alvarez Enparantzarekin elkarrizketa, 2012. (2020/IV/15an kontsultatua): <https://ahotsak.eus/DONOSTIA/hizlariak/jose-luis-alvarez-enparantza>).

da sozializazio ingurua (lagunartea, unibertsitatea, inguru kulturala) nazionalismoarekiko interesa sortzeko, mugimendu sozialetan integratzeko, ETArekin kontaktuak egiteko, edo garapen ideologikorako.

Etxabe eta *Beltzak* adibidez, gazte gaztetatik izan zuten sozializazio-esparru nazionalista euskalduna, errepublikazalea edo ezkertiarra, “Erresistentea” Etxabek esango zuen bezala. *Perturren*, *Txilardegiren* zein, dirudienez, Iturriozen kasuan, unibertsitateak mundu nazionalistarekiko eta ETArekiko harra pizteko *atrezzo* egokiak izan ziren. *Perturrek* adibidez, unibertsitate giroan Arrizabalagari jarritako heriotza zigorraren aurkako manifestazioetan parte hartu zuen, edo ETAko V. eta VI.bileren inguruko mintzagaietan, eta *Txilardegi* Bilbora ingeniarietza ikasketak burutzera joan izanak, inguru abertzale berriekin harremanak egitera, eta harreman horietatik Ekin taldea sortzera eramane zuten.

*Txabiri* dagokionez ere ikasketa prozesuak berebiziko garrantzia izan zuten. *Txabik* bazeukan inguru kultur-zale eta ikastun bat, joera euskaltzalea izango zuena, baina Padres Escolapios ikastetxeak garrantzi berezia izan zuten *Txabiren* formazio nazionalistan, tartean joera politiko horretako irakasleekin harreman estuak eraikitzearen ondorioz (Lorenzo, 2018, 22-23). Sarrikoko unibertsitateko klima antifrankistak ere bide bertsuko eragina izan zuten.

*Argalari* dagokionez, nahiko zehaztasun handiz azaldu zituen berak Apalategiren libururako prologoan bere formazio politikoaren nondik norakoak. Ideia frankistak zituen haurra izatetik, nola, orduko langileen bizi-baldintzak ezagutuz, 60etako langile gatazkak biziz, edo hamarkada horretan Arrigorriagan sortzen ari zen mugimendu kultural euskaltzalean parte hartuz, ETAn sartzea ahalbidetu zion ideologia eta baldintza sozialetan murgilduz joan zen.

Aztertutako kideon politizazio bide hauek ETAren sorrera eta lehen urteetako garapena ahalbidetu zuten testuinguruaren ulerkerarako elementu garrantzitsuak izan daitezke. Gazte-inguruetan gutxienez, oposiziorako joera bat zegoela dirudi: lagun koadriletan, lantokietan, unibertsitatean,... Baina, 60ko hamarkadak aurrera egin ahala, eta bereziki 70ekoan, geroz eta inguru sozial zabalagoek ETAko militantzia ahalbidetzen zuela dirudi (atxikimendu ideologikoa, laguntza logistikoa, hornidura militantea,...), gazte sektore batzuetara mugatua izatetik, mugimendu kultural zabalak sortzera herrietan, langile mugimenduaren mobilizazio handiak egitera, errepresioaren aurkako mobilizazioak egitera, etab. pasatu baitzen. Gertakari hauetan ez zen ETA izan eragin zuen agente bakarra, eta Estatu zein mundu mailako faktoreak kontuan izan behar dira, baina testuinguru honek ETA eta bere jarduna indartzea ahalbidetu zuela ukazina da.

#### 6.2.4. EUSKARA

Hizkuntza, euskara, konstante bat izan da ekintzaile hauen historian zehar, gutxienez eztabaidagai bezala. Mundu abertzalean (moderatuan, heterodoxoan zein estremistan) paper gorabeheratsua izan du beti euskarak, batzuentzat (*Txillardeg*i) euskalduntasunaren kohesio eta funtsezko elementua izan den bitartean (Alvarez, 2004), beste batzuentzat (Iturrioz) paper sekundarioa bete izan du (Fernandez, 2012, 85). Edonola ere, eta gorabeherak gorabehera, ETAn eta berorren munduan garrantzia handia izan du euskarak. Atal honetan ondorioztatu den bezala, hala nola 60ko hamarraldiko “loratze kulturalak” zeresan handia eman zuen etakideen, edo etorkizunean etakideak izango zirenen artean, zuzenean ETArekin lotu ezin daitekeen fenomenoa izan arren. Horrela beraz, ekintzaile protagonista bakoitzak euskararekiko ze hurbiltasun maila izan zuen aztertzea garrantzitsutzat ikusi da, ETA barneko euskararen jakintza maila eta ikuspegi militantetik ematen zaion garrantzia (estrategiari, jakintzari eta zabalpenari dagokionez) ikustera begira. Kide bakoitzak euskararekiko ze harreman, eta horrekiko ze posizio izan duen islatzen saiatu da.

Gehiengo batek ez zuen izan euskara ama hizkuntza bezala, eta hautu indibiduala egin behar izan zuen ikasteko, edo ikasten hasteko. *Argala*, *Txillardeg*i, eta *Txabiren* gurasoek (batek gutxienez) ezagutzen zuten arren, seguraski testuinguru politiko (errepresioa) eta sozialaren (prestigio eza, lotsa,...) ondorioz, ez zieten seme-alabei euskara irakatsi, baina nahi eta asmo abertzaleak piztean beraien kabuz euskara ikasteari ekin zioten. *Txillardeg*i 19 urterekin “kontzientzia hartu zuenean euskalduna zela” euskara ikasten hasi zen, hasiera batean bere kabuz amari galdetuz, geroago euskal gramatika liburuak bilatu zituen arte, baita euskara klaseak eskuratu ere (Etxeberria, 2009). 1948an hasi eta 1955 arte ez omen zuen guztiz menderatu euskara. Aztertutakoetatik euskarari garrantzia zentralena, estrategikoena eta intrantsigenteena ematen ziona zen *Txillardeg*i. Ezin zuen euskararik gabeko Euskal Herririk imajinatu, eta abertzale izateak euskara ikastea eskatzen zuela zioen: “etnia baten hizkuntza hil ezkerro, etnia hiltzen da. Abertzale batek, beraz, ez du irteera bakar bat baizik: etniaren hizkuntza gaitu eta gaurkotu, eta etniaren bizitza salbatu” (Alvarez, 2009, 122).

*Txabi* ere, bere egunerokoan irakurri daitekeenez, nahi edo ustezko eginbehar militanteetatik hasi zen euskara ikasten, eta bere kabuz egin zuen. *Iraultza* aldizkarian irakurri daitekeenez “*aún cuando le costaba construir las frases solía hablar poco, entendía perfectamente cuantas reuniones se celebran en nuestra lengua. Esto representaba un sacrificio adicional para él, que tenía muy poca facilidad para los idiomas, pero durante dos años, al menos, estudiaba todas las noches una lección*” (Zunbeltz, 1968). Buruzagi honentzat ere euskarak bazeukan bere garrantzia, eta horren erakusgarri zen ETAn 1967ko V. Biltzarrean, *Txabi*



buru zela, euskara biltzarreko hizkuntza ofizialtzat onartu izana, eta itzultzaile lanak eskaini izana.

*Argalaren* familiak ere euskara ezagutu arren (amonak, adibidez, ez zekien beste hizkuntzarik), ez zen hasiko 60etako euskal kulturaren zabalpenera arte euskara ikasten, ikastolen, euskal kantuen eta euskal auzia azaleratzen hasi zenean hasi baitzen gaueko eskoletan (Casanova; Asensio, 2006, 51).

Patxi Iturrioz eta *Perturren* inguruan badakigu familiaren partetik ez zutela euskararik ikasi. Hala ere, eta Iturriozek ETAn garaietan euskaraz trebetasun handirik eskuratu ez bazuen ere, jakina da poliki izan arren bizitzan zehar euskaraz moldatu zela, eta “euskaldunberria” zela (Bastida; Zubiondo, 1983), nahiz eta, gutxienez etakidea zen garaietan, oinarri linguistikoko etnonazionalismoa ukatzen zuen (Fernandez, 2012, 85).

Azkenik euskara ama-hizkuntza zutenak ditugu, dirudenez Etxabe eta *Beltza*. Edozein kasutan, badirudi ETAn eta bere inguruko munduan euskarak garrantzia handia zeukala. Honekiko posizioak ezberdinak izan arren garai zein joera ideologikoaren arabera, euskarak bazuen garrantzia berezi bat ikuspegi nazionalistatik. Horren erakusle da, adibidez urte luzeetan zehar fronte kultural bat egon izana organizazio barruan, besteak beste, talde kultural euskaltzaleekin lan egin edo bultzatzeko, edo euskarazko klaseak bultzatzeko. Baina egindako ikerketa honek ere baieztatzen du hipotesia, gehiengo handiak euskara ikasteko ahalegina egin baitzuen. Hare gehiago, *Argala* lider zuen ETA-Mk erbesteko militanteentzako euskara ikasteko barnetegia abiatu zuen 1974ko udan, 60 bat kidek parte hartuz (Casanova; Asensio, 2006, 183).

#### 6.2.5. ETA AURREKO MILITANTZIA

Sorreratik bertatik ETA intrantsigentzia nazionalistak definituriko antolakundea izan da, eta urteen poderioz, eta bereziki 60ko hamarkada bukaeratik aurrera, EAJk mundu abertzalean zuen hegemonia disputatzea lortu zuen, antifrankismoaren sinboloetako bat ere bilakatuz. Aktibismoan, politika erradikalean eta biolentzian geroz eta gehiago oinarritzen joango zen, eta sektore sozial gero eta gehiagoren atxikimendua sortu zuen. Banaketa labur eta iragankor batzuez aparte ETAn identitatean integratuta egon izan da beti estremismo nazionalista, eta soilik horrela uler daiteke aztertutako pertsonaiak batez ere asmo nazionalistengatik sartu izana ETAn.

Horren erakusgarrietako bat dugu, adibidez, aztertutako kideen gehiengoak aurretik militatu zuten esparru eta inguruak abertzaleak izan izana. *Txilladegi* adibidez, 1947an lehen aldiz

EAJko propaganda banatzen aritua zen, eta hurrengo urteetan Eusko Ikasleen Alkartasunean buletinak idazten aritu zen, besteak beste. Lehen aldiz atxilotu zutenean EMBko (Euzkadiko Mendigoxale Batza) kide izatea leporatuta izan zen. 1997an mugimendu honetaz ezer ez zekiela adierazi bazuen ere, mugimendu abertzaleetan hasi zen gazte gaztetatik, eta Ekin sortu eta honen zuzendaritza lanetan aritu izana (Fernandez, 2015, 246).

Atal honetan aipagarria EGIren presentzia da. Etxabe, *Txilardegi* eta Iturriozek segurtasun osoz dakigu 50eko hamarkadan zehar EGIIn militatu izana, eta ez da harritzekoa, izan ere hamarkada luzeetako erreferentzia argia zen PNV mundu nazionalistarentzat, eta hala izaten jarraitzen zuen frankismoan murgildutako urteetan ere, besteak beste, nazionalismo estremistaren adierazpenek (EMB, FNV,...) ez zutelako presentzia argirik eta erreferentziarik garaiko Euskal Herrian. Guzti hau aldatuz joango zen 60ko hamarkadan zehar, bereziki 1968tik aurrera, ETak erreferentzia hori disputatuko baitio, baina PNV, eta beraz EGI, aktibismo gosez eta grin nazionalistaz beteriko gazteentzat erreferentziazko antolakundea izan zen (Fernandez, 2015, 246.). Gazte nazionalistak bi antolakunde hauetan enkuadraturaz joan ziren batez ere: EGI eta ETA (Fernandez, 2015, 26), eta 60ko eta 70eko hamarkadetan, oso ohikoak izan ziren EGI eta ETaren arteko militantzia fluktuazioak. Horren erakusgarri dugu EGI-Batasunaren existentzia (1972an ETARA batuko zena).

Gainontzekoen kasuan, ez dago ETAz aurretiko militantzia politikoari dagokionez antolakunde politikoetan militatu izanaren ebidentziarik. Jakina da, adibidez *Argalak* Legión de María organizazio katolikoan parte hartu zuela, karitate eta sentsibilizazio lanak egiten zituelarik, baina ez da talde politikotzat kontsideratu erlijio-izaera nabarmenagatik.

### 6.3. TRAIKTORIA MILITANTEA ETA POSTUAK

Militantziaz hitz egitean, organizazio edo posizio politiko batekiko hartutako konpromisoaz hitz egiten da, eta konpromiso horrek eskatzen dituen betebeharez, hots, berau elikatzea eta horren mesederako egiteko ezberdinak burutzea. Hala ere, ETAn militatzeko eta zuzendaritza funtzioak betetzeko modu oso ezberdinak izan dira, organizazioaren behar abstraktuez gain, bakoitzaren nahi eta prestutasun indibidualekin ere lotura zutenean, eta atal honek horren azterketarako aukerak ematen ditu. Zentzu horretan, azterketa honek ETAn militatzeak inplikatzeko zituen eginbeharrak, ETaren jardunak, ardurak banaketak eta positibotzat (zein negatibotzat) baloratzen ziren elementuak aztertze balioko du. Etakide bakoitza noiz eta nola sartu zen ETAn, ze funtzio bete zituen eta ze ekintza burutu zituen aztertu da atal honetan, baita zuzendaritza postuetara heltzeko moduak ere, faktore morderoa azaleratzen baitu honek

(testuingurua, ETAn baloreak eta beharrak, zer zen positiboki baloratzen zena...). Azkenik, militanteon perfil orokor bat lortzera begira falta ezin zen elementua landu da, zerk daraman kide bat ETAn kidetza alboratzera.

### 6.3.1. IBILBIDE MILITANTEKO EKINTZA, JARDUN ETA ARDURAK

Atal honen osararako pertsonaia bakoitzak ETAn izandako traiektoriaren datu bilketa mardul bat egin da, biografia esanguratsuak osatuz. Etorbizunean argitaratzeko aukera izango delakoan, lan honetan ez dira traiektorien eta bakoitzak egindakoen aurkezpen osoak egingo, ezta atalak ere. Biografiok perfil orokorrak sortzeko erabili dira, eta perfil hauek dira atal honetan aurkeztu direnak. Hau da, zein egiteko, nolako jarrerak eta zeintzuk diren positiboki baloratzen ziren aspektuak aurkeztu dira, eta horri lotuta, zein tipotako ardurak bete izan dituen perfil bakoitzak. Azkenik, ibilbide militantea aurrera eramateak, maila pertsonalean izandako eragin batzuk islatzen ere saiatu da.

Ikusi denez, lan ideologikoa burutzea bada ETA barruan baloratu izan zen aspektu bat, eta lan honen kasuan bereziki lan ideologikoetara burubelarri aritutako militanteen kopuru nahiko altua daukagu. *Txillardegi*, *Iturrioz*, *Beltza* edo *Pertur*, beraien posizio ideologikoengatik dira ezagun, eta lan ideologiko eta politikorako zuten gaitasunak eraman zituen betetako ardurak betetzera. Joera *etnolinguistaren*, *obreristaren*, libertarioaren edo *polimiliaren* pertsonaia esanguratsuenetakoak izan ziren noizbait<sup>30</sup>, nahiz eta posizio eta iritzi aldaketak ere izan ohi zituzten. *Beltza* adibidez, joera *tercermundistaren* figura garrantzitsua izan zen V. biltzarrean. Guzti honek ordea, zuzendaritzara heltzerako orduan gaitasun intelektualak kontuan izan ohi zirela adierazten digu, eta *Perturren* kasua ikusi besterik ez dugu, Fronte Militarrean sartzea behin eta berriz ukatu baitzitzaion, lan ideologikoetarako perfil egokia zuela eta, horretara bideratu behar zelarik: hitzaldiak, Hautsi edo Zutik aldizkariak idazketak,...

Dena den, eta autorea kontziente da, zazpiko taldea hautatzerako orduan, joera ideologiko eta politiko desberdinak hautatzeko esfortzua egin dela, eta horren ondorioz, joera nagusi batzuetako ideologo garrantzitsu batzuk hautatu direla. Horrenbestez, ez da harritzekoa hautatutako gehienak, besteak beste, beraien gaitasun ideologiko eta teorikoengatik izatea zuzendaritzan, edo egondako ardura politikoetan. Dena den, eta ETA talde aktibista eta armatua izanik, jakina da jardunbide hau oso garrantzitsua zela, eta militante gehienek

---

<sup>30</sup> Historia liburu gehienetan Iturrioz ezartzen da joera *obreristako* lider bezala (Bilbao, 2006, 28; Fernandez, 2012, 84-85) baina bada paper hori Eugenio del Ríori esleitzen dionik (Ortiz, 2000)

traiektorian aktibismoari, delinkuentziari edo armei lotutako pasarte bat baino gehiago izan ohi da.

Betebehar militarri dagokionez, aipagarria da, eta beti ere hartutako laginaren arabera, ia ezinbesteko bilakatzen zela ekintza biolento edo armatuetan parte hartzea, aipaturiko ia kide guztiek izan baitute noizbait kontaktu eta betebeharren bat jardun hauekiko edo zehazki fronte edo adar militarrekiko: Adar Militarren antolakuntza lanetan, hilketetan, boikotetan, banku lapurretetan, ustezko salatarien kontrako ekintzetan, poliziaren aurkako atentatuetan, estortsioan, etab. Zoritxarrez, gaur gaurkoz ezin daiteke zehaztasunez jakin ETAREN ekintza bakoitzean nork eta zein mailatan parte hartu zuen, eta lan hau osatzerakoan zuzenean ikusi da arazo hau. Horregatik da garrantzitsua tipo horretako gertaerak zehatz eta zuzen ikertzea, bereziki odol isuriak tartean diren kasuetan, ezin daiteke eta ETA ulertu hauek ulertu ezean.

Ezin aipatu gabe utzi, militante ia gehienek antolakuntzari lotutako funtzioak bete izana. Badira fronte zehatzen antolakuntzan ibili direnak, herrialdeen koordinazioan, antolakunde berrien sorreran, maila internazionalako kontaktu edo sareen sorreran edo komandoen antolakuntzan, baina hartutako laginaren osotasunak bete izan ditu noizbait barne antolakuntzari loturiko betebeharrak.

Azkenik, kulturgintzari lotutako betekizunak ere baditugu, hartutako laginaren erdiak-edo, arlo honi lotutako arduraren bat bete izan duelarik. Ardura hauek orokorrean oso lokalak eta militantziaren hastapenei lotuak izan ohi ziren (kultur talde lokalen dinamizazioa, etab) eta soilik kasu berezietan lortu dira fronte honi lotutako ardura handiagoak bete izanaren ebidentziak.

Bukatzeko, aipatu beharke litzateke ardura tipo bakoitzak eskatu izan dituen perfilak. Antolakuntzari lotutako eginbeharrak dira gehien errepikatu izan direnak, fronte guztiei eta antolakundearen zuzendaritzari lotutako nahitaezko eginbearra baita. Eginkizun kulturalak lirateke gutxien errepikatu, edo behintzat ardura garrantzitsutzat gutxien bete zirenak, eta kasu gutxitan daude lan ideologikoa eta lan militarra biak uztartu ez dituen militanterik. Guzti honek, ETAKO militantziaren multipolaritatea eta eginkizun mordoa erakusten digu, hilketetatik hasita talde lokal zehatzen dinamizaziora arte doana, nahiz eta

Etorkizuneko ikerketetarako ildo posibleak aurkeztearren, biografien osakeraz ghan, interesgarria litzateke ETA eta antzeko taldeak hobeto ulertzera begira lider izateko moduei erreparatzea. Hau da, nola lideratu ohi zen ETA, nork zeukan garai bakoitzean posizio nagusia, ea beti errepikatzen zen oinarri esentzialik zegoen, nola lortzen zen militante

errespetagarria izatea, etab. Horretarako, noski, lagina handitu beharko litzateke, izan ere ETaren erreferentzia ez da izan bereziki ideologikoa (argitalpenak, elkarrizketak etab. egin zituen arren), aktibismoarako gaitasuna eta hortik lortutako propaganda ziren ETaren inguruan mugimendu erlatiboki handi bat aglutinatzea lortu zutenak, eta horrek nolabait kontrastatzen du lan honetan ateratako perfil ideologizatuarekin. Ideologia eta teoria, organizazioan oso garrantzitsuak zirela ukatu gabe, perfil ezberdinen eta lidergo tipoen (tipoaren) ikerketa egitea garrantzitsu ikusten du autoreak.

### 6.3.2. ZUZENDARITZARA HELTZeko MODUA

Atal honetan kideak direktiba postuetara nola heldu ziren aztertu da, horrek barne funtzionamendua, zuzendaritzaren perfila, positiboki baloratzen ziren aspektuak zein testuinguru politikoa hobeto ulertzen lagunduz.

Zuzendaritza postuetan jende berria sartzeko bi arrazoi nagusi egon daitezke. Batetik aurretik existitu izan den funtzioaren arduradunaren erreleboa izatea, eta bestetik ardura berriak sortu izana. Erreleboa emateari dagokionez, hiru kasuistika identifikatu dira: Lehenik, kanporaketa edo ardura kentzea. Adibidez, Iturrioz 1966an Ofizina Politikoan zeukan ardura kendu zitzaionean arrazoi politiko ideologikoengatik espulatsu zutelako izan zen. *Txabi* Etxebarrieta, besteak beste, Jose Antonio anaiarekin eta Eskubirekin batera, kanporaketaren arduraduna izan zen, eta Iturriozen postua hartuko zuen 1967tik aurrera. Bigarrenik, errepresioaren eraginez, atxilotua izatea edo alde egin behar izatea. Kasu hau izan ohi da ohikoena ETAn, eta horrela hartu zuten beraien ardura Etxabek (adar militarra), Iturriozek (adar politikoa), edo Beltzak (Gipuzkoako herrialdeburua). Azkenik, inizatiba propioz ardura uztea litzateke azken kasua, eta Etxabek, 1971n dimisioa aurkeztean gertatu zen adibidez, ETA-Vko fronte militarren buru Eustakio Mendizabal *Txikia* sartu zelarik.

Bigarren arrazoi nagusia ardura berriak sortu izana litzateke, eta honetan bi kasuistika bereizi ditugu. Batetik, organizazio berdinean ardura berriak sortu izana. Adibidez, biltzar batean erabaki delako. I. biltzarrean komite exekutibo bat sortzea erabaki zen, eta Iturrioz eta *Txilardegik* parte hartzen zuten bertan. Bestetik, banaketa batek eragindako berregituraketaren ondoriozko ardura berriak genituzke. Hala nola, 1974ko banaketan mili eta poli-miliek ardura eta arduradun berriak izendatu behar izan zituzten, bereziki miliek, organizazio berri bat sortu behar izan baitzuten. *Pertur* eta *Argalak* horrela hartu zuten organizazio bakoitzeko nagusitasuna. Iturriozek ere, kanporaketa forma hartu zuen banaketaren ondorioz (izan ere, bi ETA sortu ziren horren ondorioz), ETA-Berriko ardura garrantzitsuak hartu zituen.

Baina, nola hautatu zen postu horietarako pertsona bat eta ez beste bat? Zein ibilbide egin behar izan zuen bakoitzak zuzendaritzara heltzeko? Pertsona bakoitzaren arabera ezberdina izan zen ibilbidea, baina noski badira elementu eta joera errepikakorrak. Gaitasun teoriko, ideologiko eta politikoak baloratu ohi ziren, batez ere ardura batzuk betetzerako orduan: *Txabik* adibidez, gaitasun teorikoak eta V. biltzarra dinamizatzeko gaitasuna demostratu omen zuelako izan zuen Ofizina Politikoan integratzeko aukera, baita *Txillardegik*, besteak beste, ETA bera sortzeko aukera. Hala ere, balentria eta aktibismorako disposizioa ETA bezalako talde aktibista batean ezinbestekoa zen, izan ere “*donde de verdad se cortaba el bacalao era demostrando valentía y arrojo en las acciones*” (Garmendia, 2000, 120). Horiez gain, bakoitzaren diziplina, traiektoria, konfiantza, jokamoldeak eta lehia pertsonalak ere kontuan hartu behar ziren.

Azterketa honetatik ateratako ondorioak laburtze aldera, begi-bistakoa da ETAREN jarduna, eta seguraski frankismoko beste erakunde klandestinoena ere, oso aldakorra zela. Aldakorra jardunari dagokionez, baina baita militantziari dagokionez, arrazoi ezberdinak tarteko sarritan aldatzen baitzen. Horrez gain, lan zaila eta subjektibotasunetik asko duena izan arren, baliozko elementu ezberdinak identifikatzen saiatu da autorea, eta orokorrean badirudi arduraren arabera perfil ezberdinak bilatu ohi zirela. Horren erakusgarri dugu *Txillardegi* edo *Perturren* paper eta ardura garrantzitsuenak paper ideologikoetara murriztea, edo Etxabe lan tekniko eta militarra bideratzera. Horrek ez du esan nahi ordea, modu zurrunean banatzen zirenik lanak, lan batzuetan espezializatu arren, beste tipo batzuetako lanak ere egiten baitziren: Etxaberen idatzi “politikoa” 1970eko VI. biltzarra ezeztatzen, *Argalak*, kontingentziak hala behartuta, aurrez inoiz bete gabeko zuzendaritza politikoko funtzioak bete behar izatea, etab.

Hala ere, eta 1974ra arte (ETA-M) ETA erakunde eksklusiboki militarra izan ez arren, badirudi sektore militarra gailendu ohi zela gainontzekoekiko. Armen epika eta erakarpenagatik, beldurragatik edo ustez esperantza sortzeko zuen gaitasunagatik, gehiengoak lan militarretan sartu nahi izaten zuen, baina aldi berean apurketa eta barne frikzio handiak sortu ohi zituen, orokorrean perfil “milia” bereziki politikoa izan ez arren.

### 6.3.3. MILITANTZIA UZTEKO ARRAZOTIAK

Azkenik, militanteen arriskuak, iritziak eta joerak ikertzera begira, ETAKO militantzia albo batera uztera zerk eraman zituen ikertu da. ETAKO kidetzaren perfila aztertzerara begira, ageriko auzi bat den arren, ez da askorik aztertu, eta garrantzitsu ikusi da pauso hau ematea. Batzuk jardun politikoan ari ziren bitartean, eta arrazoi politikoengatik, hilik edo desagertuak

suertatu ziren. *Txabik* bazekien konfrontazio armatuak lehenago edo beranduago odola isuriko zuela, eta ez zirudien askorik axola zitzaionik horretan lehena izatea. Halaxe izan zen gainera, atxilotzera arriskatu baino nahiago izan zuen hil, eta hila izan<sup>31</sup>. *Pertur*, jakina denez 1976an desagertu zen, kide ohi batzuek ikusi zutelarik azken aldiz, eta bere desagertpena edo/eta heriotza argitu ez den arren, hipotesi guztiek dauzkate lotura politikoak (UPV-EHU, 2017; Saiz-Pardo, 2012; Dominguez, 2009). *Argala*, azkenik, BVEk aldarrikatutako bonba batek hil zuen, besteak beste, Carreroren hilketaren mendeku gisa (Rubio, 2003). Gertaera hauek, ETako militantziak bere horretan zituen arriskuak mahai gaineratzen ditu, eta hau, seguraski, etakidearen psikologiaren eta epikaren eraikuntzan elementu oso garrantzitsua izango zen.

Baziren ordea beste arrazoi batzuk. Esaterako, arrazoi ideologikoengatik kanporatua izan zen Patxi Iturrioz. Hala ere, kanporatuak izan ziren beste batzuekin batera ETA-Berri sortzeari ekin zioten, beraz ez zuen definitiboki ETA utzi. Bai ordea 1968an ETA-Berri erakundetik Komunistak izenekora pasatu zirenean, arrazoi ideologikoak medio, ordura arteko ETaren ondorengotza ukatuz. Hala beraz, *Txilardegi*, *Beltza*, eta Etxabe bezala, Iturriozek ere borondate propioz utzi zuela ETA esan daiteke, Komunistak izatera pasatzeko borondate kolektiboaren parte esanguratsua baitzen. *Txilardegik*, ETA abertzaleen fronte zabal eta anitza izatea nahi zuenak, organizazioak marxismoa besarkatu omen zuelako utzi zuen, baita *Beltzak* ere 1974an, sozialismo libertarioan kokatuz bere burua, leninismoarekiko erretizentziak zituen eta. Etxaberen irteera ere bitxia izan zen. Dirudenez, ETak ospatu behar zuen VI. biltzarrean Etxabe “demokratikoki” kanporatzeko asmoa zegoen, baina hau biltzarrera agertu ez, eta deslegitimatatu egin zuen, banaketa sortuz eta ETA-V gisa ezagutu zen taldea osatuz. Handik gutxira, Beihl kontsularen bahiketarekin izandako tirabirak medio, *Txomin* eta *Txikiak* ardura militarra uzteko eskatu zioten eta Etxabek, erreleboa eman behar zuela pentsatuta, ETA utzi zuen (Nuñez; Egaña; *et alii*, 1993, 1.T., 212).

Atal honetatik ondorioak ateratze aldera, begi bistakoa da ETAn militatzeak zekartzan arriskuak. Ez soilik atxiloketa edo torturarako arriskua, bizitza bera galtzeko arriskua ere

---

<sup>31</sup> *Txabiren* figura oso mitifikatua izan da, batez ere, bere heriotza dela eta: ustez ETako lehen hiltzailea eta eraila. Garmendiak dioenez, lider erreal eta erabakigarria Jose Antonio izan zen (Garmendia, 2000, 97), baina bere heriotza tragikoaren ostean ETak kanpaina propagandistikoa abiatu zuen *Txabiren* figura mitifikatuz (*Zutik 59zkoa*). Hala ere, kanpaina honek ez zuen *Txiki* edo *Argalaren* kasuan bezala urteroko ospakizun erritual bilakatzeko aukerarik izan (Pablo, 2000, 270-281). Dena den, *Txabiren* gaitasun estrategikoak eta lider sena azpimarratu izan dute bere kide ohi askok, hala nola, Gorostidik (Nuñez; Egaña; *et alii*, 1993, 2.T., 240). Bukatzeko, eta autore gehienek aipatu ohi dutenaren kontrara, ez dirudi errepresioaren eraginez hildako lehen etakidea *Txabi* izan zenik, 1968ko urtarrilean J.M. Quesada etakidea hil baitzen torturek eragindako zaurien ondorioz (Egaña, 2018). Seguraski *Txilardegi* heriotza honetaz zebilen 1960ko Quesada baten heriotza aipatzean (Nuñez; Egaña; *et alii*, 1993, 1.T., 171).

mahai gainean zegoen, eta hau, seguraski ETAn beraren jardun militarrekin intererlazioan dago. Frankismoan oposizioko edozein jardun politikok atxiloketa, tortura edo heriotzaren aukerak inplikatzeko bazituen ere, etakideek aurrera zeramaten jardun militarrek aukera horiek handitzen zituen, eta modu berean, heriotzak eta heriotzaren arriskuak etakideengan epika, beldur, justifikazio dialektiko eta psikologia bat sortzen zuen, jardun militarra aurrera eraman nahi duenarentzat ezinbesteko osagaia dena. Bestalde, errepresioaz gain ETAn zatiketek, barne gatazkek, borondatez utzitako militanteek, zein espulsatuek honako ondorio hauek mahai-gaineratzen dituzte, besteak beste: Testuinguruaren izaera asaldua eta ezegonkorra (aldaketa politikoak, oposizioko elementu ezberdinen indartzea,...), erakundeak jardun konstante baterako zuen ezgaitasuna (militantzia aldakortasuna, desadostasunak, linea ideologiko konstante baten falta,...), eta ETAn militatzeak ezaugarri zehatz batzuk exigitzen zituela ulertzera (gaitasun ekonomikoak, mugikortasuna, osasuna, bizi proiektu batzuen ukapena,...).

#### 6.4. GARAIO POSIZIO TEORIKO ETA POLITIKOAK

Atal honen helburu nagusia organizazioan izandako eztabaida eta posizio ezberdinak ikertzea izan da. Egiteko hau sakontasunez egin nahi izatekotan gutxienez GrAL oso baten luzera beharko litzatekela kontuan edukita, izandako baldintzetara egokitu da ikerketaren atal hau ere. ETAn historian behin eta berriz landu eta tratatu izan diren hiru aspektu hartu dira horretarako: nazio-auzia, auzi soziala eta estrategiaren aferak, eta horiei lotuta garai bakoitzean kide bakoitzak hartutako postura ikertu da, modu orokor batean bada ere. Hala ere, lehen bi arloak soilik aspektu analitikoetara, eta strategiarena soilik armen eta biolentziaren aferara mugatu direla esan behar da, horrela eztabaidetako elementu garrantzitsuenak aztertzekeo parada dagoela iritzita.

Erakunde armatuaren garapen historiko eta ideologikoaren inguruko lan historiografiko dezente egin izan dira, eta nola ez, lan historiografikoen elementu komunak hartu ditu kontuan autoreak lan horretarako. Zentzu horretan, aipatzekoa da eztabaida etengabeak izan direla nazio arazoaren auzi sozialen eta biolentziaren erabileraren inguruan eman izan direnak, (beti ere, hiru elementuon intererlazioa ukatu eta ahaztu gabe), eta ETAn II. biltzarrean (1963) jada hiru joera lauso hauteman zitezkeen, hurrengo urteetan gardentzen joango zirenak, eta esan daiteke 1974an ETA-VIko *maioak* disolbatu arte korrante hauek plazaratutako posizio ideologiko eta estrategikoak elkarrekin matrakan izan zirela. Garaiekin arabera erreferentziazko kideak eta proposamenak aldatu arren, *kulturalismoa* edo



*etnolinguismoa*; *obrerrismoa*; eta *tercermundismoa* edo *antikolonialismoa* dira aipatu hiru korranteak. Bakoitzeko ordezkari bana, eta gehiago ere badaude lan honetan, eta hurrengo lerroetan landuko dira bakoitzaren posizio oinarritzkoenak.

Bukatzeko, esan behar da, gai bakoitza sakontasunez landu ezin izan den arren, ETAko eztabaiden funts orokorra, eta beraz, ETAREN zatiketa ezberdinen erroak ulertzeko lan emankorra egin dela.

#### 6.4.1. NAZIO AUZIA

ETAren jardunaren oinarria nazionalismo erradikala izan da beti, edo ia beti, eta kasuan kasu elementu berri batzuk edo besteak gehitu bazaizkio ere lerro nazionalistak izan du jarraikortasuna. Dena den, ETAREN oinarri nazionalisten aurkako barne-erreakzioak ere izan dira, oinarri hori alboratzeko saiakerak eginez, *obrerristen* kasuan bezala. Iturrioz eta enparauek, ez zuten desberdintasunik ikusten euskal eta espainiar langileen artean, eta nazionalista erradikalekin konfrontazioan kokatzen zuten beraien burua, “euskal *chauvinismoa*” salatuz. ETA erakunde ez nazionalista bilakatzeko esperantza zeukan, langile klaseari lehentasuna emateko (Barbarroja, 2015). Irakurketa marxistatik abiatzen ziren; gizartearen klase banaketak ekarri zuen burgesiaren intereserako marko politikoak sortzea, hala nola, markatu nazionalak (Estatu-nazioak), eta hori zen nazio zapalkuntzaren iturburua. Analisi berbera egiten zuten *sextako* sortzaileek, eta baita *Argalak* ere, planteamendu politikoetan erretizentzia handiak izan arren (Beñaran, 1977).

Hala ere, tipo horretako irakurketak egiten zituztenen aurrean, *Txilardegik* eta ingurukoek ETARI sorreran eman zioten oinarrien berreskurapenerako hamaika saiakera egin zituzten. *Kulturalista* bezala, besteak beste, euskarari berebiziko garrantzia ematen zioten euskal etnia esentzialaren kohesio-elementu gisa. *Branka* aldizkaria zen sektore honen agerkari nagusietakoa.

Ideion aurrean bazeuden joera sozialista eta marxistak zituztenak, baina nazio-auziaren lehentasuna ikusten zutenak. *Tercermundistak* ziren, eta besteak beste, *Txabik* eta *Beltzak* V. biltzarrean sektore hau ordezkatu zuten. Garai bertsuan “hirugarren munduko” deskolonizazio prozesuetan (Argel, Txina, Kuba,...) oinarritutako planteamenduak diseinatu zituzten, eta Paris edo Pragan kalera irtetzear zeuden, edo Italia edo Ipar Irlandan armekin esperimentatzear zegoen belaunaldiaren parte ziren (Fernandez, 2014, 290). Nazionalismo iraultzailea deituriko tesien sortzaileak izan ziren, euskal lurren atzerriko okupazioaren aurka borrokatzea planteatuz: langileria eta burgesia nazionalista (burgesia txikia eta ertaina) oligarkia inperialistaren aurka (burgesia handia). V. biltzarreko garaileak izan ziren, eta

ondorengo urteetan ere eragin nabaria izan zuten, adibidez ETA-Ven gan (eta beraz etorkizuneko ETA-PM eta ETA-Mren gan). Dena den, aipatzekoa da *Pertur poli-milien* liderraren proposamenek arazoak sortu ohi zituela sektore nazionalista “ortodoxoetan”. “Heterodoxia” besarkatu ez arren, dogmekiko atxikipen gutxi zuen, eta horren erakusle dugu Herriko Batasuna proiektua, fronte abertzale klasikoa ukatu eta PNV kanpoan utzita, talde ezberdinen arteko programa komun bat aurkeztuz (Fernandez, 2014).

#### 6.4.2. AUZI SOZIALA

Azpiatal hau singularrean adierazi da, izan ere, klase sozialen definiziora eta klaseon arteko gatazketara murriztuko da. ETA sorreratik erakunde nazionalista bat izan arren, gutxi pasatu behar izan zen bere barnean joera ezkertiarak agertzen joateko, besteak beste 1960ko hamarkada hasierako langile mugimendu, greba eta klase gatazken eraginez. V. biltzarrerara arte itxaron behar izan zen marxismoa doktrina ofizialtzat formalizatzeko, nahiz eta, paradogikoki biltzar horretan bertan marxista ortodoxoak kanporatuak izan ziren. *Obreristak* ziren kanporatu hauek, eta gizartearen irakurketa marxista zorrotza egiten zuten. Askapen nazionalaren eta askapen sozialaren arteko doiketan sakontzeko asmoz teoria sozialistetan sakontzeari ekin zioten, eta leninismoa abertzaletasunarekin bateraezina zela ondorioztatu zuten (Fernandez, 2012, 85). 1966 arteko ETako Ofizina Politikoak, zein ETA-Berri erakundeak politika honi jarraituz, estatu mailako antolakundeak sortzera jo zuten, hala nola, MCE.

*Tercermundistek* berriz, Euskadiren batasuna, euskararen garrantzia, zein Euskadiren klase borrokarako marko autonomo izaera ukatu gabe klase gatazka eraman nahi zuten aurrera. 50 eta 60ko hamarkadetan sortu zen gizarte industrial berriak, eta hortik eratorritako langile gatazkek *obreristez* gain beste sektoreetan ere zeresana izan zuen. Langile Fronte bat ireki zen ETA-Zaharraren baitan, baina oligarkiaren aurkako fronte nazionala (klase-artekoa) osatzea zen asmoa (A.H., 1977). *Txabik, Beltzak, Argalak* eta beste neurri batean, eta zenbait aldakuntzekin *Perturrek* konpartitu zituzten tesi hauek, Independentzia eta Sozialismoa binomio pean bilduta.

Azkenik, nahiko nagusitua zen beste sektore zabal bat, marxismoa ukatzen zuena, eta klase-banaketa azterketa bigarren plano baten uzten zuena. Nazionalista intrantsigente hauek, Etxabe eta *Txillardeg*i adibidez, auzi sozialen eta nazionalaren arteko diferentzia marrazten zuten, bigarrenaren urgentzia azpimarratuz. Izan ere, Etxaberen hitzetan, “Gure arazo nazionala oraintxe bertan konpontzekoa da ala desagertzera goaz herri bezala; arazo soziala,

ordea, hemendik bi mila urtera ere hortxe izango dugu, hemen ez bada han” (Nuñez; Egaña; *et alii*, 1993, 2.T., 213).

Ikusi denez, auzi nazionala eta soziala aztertzerakoan, batean zein bestean elkarren erreferentziak agertu ohi dira, bereziki 60ko hamarkadak aurrera egin ahala

### 6.4.3. BORROKA ARMATUA

*Txillardegik* kontatu zuenez, ETAREN sorreran asmoa ez zen talde armatu bat egitea, baina hasieratik zeukan ekintza-adarra deiturikoa (margoketak, sabotajeak,..). 1960ra bitartean borroka moldeen inguruko eztabaidak izan ziren (Gandhiren bidea hartu ala armatua,..), baina 1960ko hamarkadara sartzerako bide armatuaren aldeko posizioak hartuak ziren. Landutako protagonistetako inork ez du ukatu izan bitarteko armatuen erabilera, ez behintzat etakidea izan den garaian, hala ere, ikuspegi oso desberdinak egon dira berorren gainean.

Iturriozek adibidez, orduko Ofizina Politikoko kideak jardun militarra jardun politikora subordinaturik egon behar zela zioen, eta jardun politikoaren oinarria estatu mailako Klase-Fronte bat (ez Fronte Nazionala) eratzea, “erreforma iraultzaileak” lortzen joatea, eta lan sindikalean indarra jartzea zen (*Zutik*, 1967). Baina bazegoen beste sektore bat, kasu honetan *Txabi* eta *Beltza* aipagarriak, lerro honekin kritikoak, eta besteak beste utopiko eta bakezale kontsideratzen zituztenak aurreko joerakoak (Unzueta, 1980, 31). ETA disolbatu eta Estatuaren aurkako borroka armatua likidatu nahi izatea akusatu zioten lehenei, eta horien kontrara, borroka armatuan pauso berriak emateko nahia adierazi zen. Lau frontetan banatu zen ETA, horietatik bat militarra, eta heriotzak inplikatzeko zituzten ekintzak planifikatzen hasi ziren, hala nola, M. Manzanasen. Ekintza-errepresioa-ekintza eskema estrategikoa frogatu beharra zegoen, eta esan daiteke bereziki 1968tik aurrera izan zela aplikatua (Fernandez, 2014, 291-293).

Jardun militarren gainjartzearen aldeko beste figura garrantzitsu bat Etxabe litzateke. 1970eko garai ezegonkor hartan, ETAREN norabidea argi ez zegoen garaian, “milien” burua zen, zehaztasun teorikoetan “denbora galtzea” gustatzen ez zitzaien gizona zen, baina “*la lucha armada como el motor de la resistencia vasca*” kontsideratzen zuen (Jáuregui, 2000, 257).

Behin 1970eko hamarkadan sartuta, ETAREN historiako banaketa esanguratsuenetako bat ikertzea tokatzen da; 1974koa. Ordura arte organizazioaren historian izandako zatiketak arrazoi teoriko edo ideologikoei lotuak izan baziren ere, ETA-M eta ETA-PM banatzera eramane zuten eztabaidak, historian lehen aldiz, antolagarri eta praktikari lotuak izan ziren

(Jáuregui, 2000, 260). ETA-Mk, *Argala* buru zuela, ETA talde eskusiboki militarra izan behar zela zioen. Franko, eta frankismoa, hilzorian zeuden, aldaketa demokratizatzaile bat saihestezina ikusten zuen, eta orduko ETAREN gaitasun operatibo zein babes maila ikusirik, fronteen antolaera aldatu behar zela ikusten zuen. Alderdi politikoak, sindikatuak eta beste sortu bai, baina ETA siglen karga kenduta. Guzti horrek, masa-borrokak indartzen zituela argumentatzen zuen<sup>32</sup>.

Bestetik, banaketaren beste aldearen iritzia zegoen. Bereziki Carrero Blanco hilaz geroztik, *Perturren* lanaren ildo nagusia borroka armatuaren eta masa borrokaren arteko uztartzerako egituraketa pentsatzean zetzan. *Miliek* borroka militarra aurre-jartzen omen zuten, eta bereziki Langile Fronteko kideek ETA siglak masa borrokarako eragozpen bat zirela zioten. PMen formula organizatiboa sortu zen hasiera batean, ETAREN fronte-banaketa mantenduz. Hala ere, pare bat urte geroago, asko berritu ziren ideiak *Perturren* partetik. Borroka armatua masetatik banatzearen alde agertu zen, besteak beste Tupamaro uruguaiarren teorizazioetan oinarrituta, eta geroago EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) izango zenaren oinarriak finkatu zituen: alderdi politiko baten existentzia, eta organizazio armatuaren menperatzea politikoaren alde<sup>33</sup>.

Dena den, badago beste sektore txiki bat ETA barruan ikuspegi kritikoa mantendu zuena, eta joera libertariokoa zena. *Beltza* eta ingurukoek, 1972tik aurrera borroka armatuak beste bide bat hartu behar zuela iritzi zuten, matxinada forma hartzearen alde, eta abangoardia armatuaren formula ekidinez<sup>34</sup>. Garai hauetan, forma asanblearioak eta autonomiaren praktika eta teoriak asko zabaltzen ari ziren, eta hauek borroka armatuarekiko ikuspegi positiboa zeukaten. Bide hori jarraituz, matxinada ezinbestekoa zela babesten zuten<sup>35</sup>. Joera honetatik edanda sortu ziren hamarkada bukaeran, esate baterako, Komando Autonomo Antikapitalistak.

---

<sup>32</sup> 1974ko azaroan idatzitako *ETAREN Agiria*-n irakurria. ETA-Mk idatzitako agiri bat da, *Argalak* idatzia omen, eta egoera politikoaren gaineko azterketa eta horren ondorio politiko-organizatibo batzuk planteatzen ditu etorkizun hurbilera begira (ETA, 1974).

<sup>33</sup> Azken ideia hauek *Otsagabia* deituriko txostenean ondo jasota daude. 1976an idatzia, eta *Zutik 67an* ETA-Mk ere beregan hartu zituen txosten honetako ideiak.

<sup>34</sup> Hamarkada hasieran ETA-Vik ere borroka armatua minoria batek praktikatzeko zenez, burges-txikia zela salatu zuen. *Argalak* horren aurrean, borroka armaturako prestutasuna langileriaren barneko adar erradikalenak adierazten zuela zioen, baina orokorrean klase honen identifikazioa borroka armatuarekiko handitu egiten zela.

<sup>35</sup> Nuñez, *et alii*, 1993, 188-192; Asurmendi, 2012; Velez de Mendizabal, 2011; Lopez Adan, 2012.

## 6.5. ETA OSTEKO MILITANTZIA

ETAko militanteak militante politikoak izan zirela ulertuta (helburu politikoak zeuzkan organizazioa baitzen ETA, militante bakoitzaren helburu zehatza zein izan zen zehaztea ia ezinezkoa izanda ere) balio politiko handia du militantziaren joerak ikustera begira bakoitzaren traiektoria politikoaz aztertzea. Zentzu horretan, ETA ostean zein esparru politikotan jardun zuten (jardun baldin bazuten) eta ETAko iraganarekiko zein irakurketa egin zuten aztertu da atal honetan. Atal honek monolitismoak, idealizazioak eta aurreiritziak saihestu ditzakela uste da.

### 6.5.1. ETA OSTEAN NON MILITATU ZUEN

Lan honen lagina hain txikia izanda, hemen adierazitako portzentajeak ez dira ETAko militantzia osoarekiko proportzionalak izango. Hots, hartutako laginaren ia erdia (7tik 3) hilda suertatu zen etakidea zen bitartean, baina proportzio hau ezin aplika daiteke militantzia osora. Ezta ere, noski, aztertu den militantzia-traiektoria, baina honen pluraltasunaz jabetzeko balio dezake. Badira batzuk, interes politiko sakon bat mantendu arren, organizazio politikoekiko lotura zuzena eta militantzia aktiboa saihestu duen sektore bat. *Beltza* adibidez, sektore batzuekiko hurbiltasuna sentitu arren (LAIA-EZ, mugimendu autonomoa,...), ez dirudi berriz lotuko denik talde politiko zehatzetara eta politika zuzentzen den lekuetara, baina idazketari eta diagnostikoari lotutako bere lanetan jarraitu du urte luzez. Etxabek ere, 80ko hamarkadatik ez dirudi militantzia aktibo sendorik mantendu zuenik, hala ere, 70eko hamarkada oso bizia izan zuen, ESBn militatzeaz gain, gose greba mordoa eta hilketa saiakera ezberdinak bizi izan zituen, anaia eta bikotea hilak suertatuz, eta bera larri zaurituz. Aipagarria, eta erakusgarria Konstituzioaren erreferendumaren gaineko HBko ekitaldi zentrallean hitz egin izana, inguru horrekiko hurbiltasunaren erakusgarri.

*Txillardegiri* dagokionez, linea propio eta bertsua mantendu zuen bere bizitzan zehar posizio ideologiko eta politikoei dagokionez. Euskara, euskaltzaletasuna eta ezker moderatua izan ziren beren posizio nagusiak, baita ETA ondoren babestu zituenak ere. Hainbat proiektu politikotan aitzindaria izan zen, ETAz gain, Euskal Herrian Euskaraz, ESB alderdia, HB, Monzonekin batera Fronte Abertzale bat eraikitze saiakerak,... Azken urteetara arte Ezker Abertzaleko manifestazio ezberdinetan parte hartzeaz gain, HBtik senatari (1986an eta 1989an hautatua), Aralar alderdiarekin aurkeztu zen (2005), eta ANVtik ere aurkeztu zen (2008). Bitartean, noski, soziolinguistika, linguistika, literatura eta orokorrean euskara arloan lanean jarraituz.

Azkenik, Patxi Iturrioren traiektoria politiko bizia aipatu behar da. EGI eta ETAtik pasatu ondoren, ETA-Berrik Komunistak edo Movimiento Comunista Vasco izena hartu zuen, marxismo-leninismotik eta maoismotik edanez besteak beste. 1971 eta 72 urteen artean, lan handia egin zuen Iturriozek Estatuko talde komunista txikiak batu eta MC (Movimiento Comunista) sortzen, baita horren parte zen EMC-EMK (Euskadiko Mugimendu Komunista) alderdia. 1977an, EIArekin batera, EE (Euskadiko Ezkerra) sortzeari ekin zion, eta Letamendiaren dimisioaren ondoren, lortutako parlamentari bakarraren postua bete zuen. Trantsizio ostean nolabaiteko hurbilpen ideologikoa bizi izan zuen berriro ETAREN mundurantz (Ezker Abertzalea) (Bastida; Zubiondo, 1983), baina 1990ean PSEn sartu zen.

Norabide anitzeko ibilbideak izan dituzte ETAKo militante ohiek. Heriotzaz gain, nazionalismo erradikalaren tradizioa mantendu dutenak, politikatik urunduak, mugimendu autonomo eta libertarioetara hurbilpenak, estatu mailako sozialdemokraziarantz jo dutenak, eta beste hainbat joera izan dira. ETAKo militantziaren aldakortasunaren eta pluraltasunaren erakusle akaso.

#### 6.5.2. ETAKo MILITANTZIAREKIKO IKUSPEGIA

Azkenik, eta lan honetako azterketa prosopografikoarekin bukatzeko, a posteriori ETAKo militantziaren gainean egin izan dituzten balorazioak ikertzen saiatu da, horretarako, bai iraganeko ETAREKIKO iritziak zein garaian garaiko ETAREKIKO iritziak biltzen saiatuz. Ikusi denez ez iraganeko ez garaian garaiko ETAREN salaketa, ukapen ala gaitzespen irmorik ez da egiten ohi, nahiz eta kritikaren bat izatea orokortua den. Patxiren hitzetan, hasiera batean borroka armatua oso minoritarioa zela kritikatzin zuten, baina garbi zeukaten borroka minoritario horren eraginak ikusteke zeudela. 1983an esan zuenez, ETAK arrazoi zuen, euskaldunen parte handi batek borroka armatuaren alde jo baitzuen, mugimendu handi bat sortuz. Garai hauetan EMK alderditik hurbilpen saiakera batzuk egin zituzten, baina distantziak mantenduz, hala nola, militarismoaren gaineko desadostasunengatik (Bastida; Zubiondo, 1983).

*Beltzaren* aldetik ere, antzeko kritikak izan dira. *Beltza*, ETAREN eta bereziki borroka armatuaren historia sakon landu duen autore bat da. ETAREN ekintza asko kritikatu arren, eta teknika armatu zehatzekin ados egon gabe, horren atzean arrazionaltasun bat zegoela ulertzen zuen. Zentzu horretan, behin ETA utzita urte luzeak pasatu arren, ETAREKIN identifikatzen zen bere helburuak (V.biltzarrean eta ETA-Zaharrean definituak) konpartitzen dituelako, nahiz eta postura zehatzekin bat ez egin. Militarismoa eta terrorismoa esleitu izan dizkio praktikan, eta autoritarismoa barne mailan. Hasieran izaera piramidala onartu arren, jarrera

autoritarioak zeudela konturatu zen (besteak beste, barne korronteak saihesteko), eta zentzu horretan modelo piramidala (leninista) ukatu izan du orduz geroztik, autoritarismoa sortzen duelako.

*Txillardeg*i eta Etxabe ere, behin ETA utzi ostean eta lotura organizatiboak hautsita ere, ETako sentitzen ziren. Besteak beste PCEn partetik-eta infiltrazioak omen zeudela kritikatzan zuen *Txillardeg*ik, baina hala ere, ETako sentitzen zen. Bizitzako azken urteetara arte mantendu zuen atxikimendu hori, eta horren erakusle dugu, adibidez, hiltzen zenean *Txomin* Iturbe etakide historikoaren gorpua estali zen oihal berarekin berea ere estaltzeko egindako eskakizuna, eta Ezker Abertzale inguruko manifestazioetan parte hartzea. Etxabek ere, begi onez ikusten zuen ETA. Hare gehiago, egindakoa ondo egin zuela zioen, baina gutxi, *Txikiak* esan omen zion bezala.

Egindako ikerketa lan guztian horrela izan arren, bereziki azken atal honetan ezinezkoa izan da traiektoria politikoari lotutako zein ETArekiko iritziari lotutako jarrera eta posizio guztiak islatzea. Bereziki atal honetan diogu, nolabait ETA barnean izandako joera garrantzitsuenen posizioak islatzea nahiko ondo lortu delako, aldiz, kideak haina traiektoria eta iritzi egon daitezke ETaren inguruan, eta irakurleak ezingo du espero lan honetan horien guztien isla bilatzerik. Dena dela, irudi nahiko plurala lortu da, eta joera nagusi batzuk adierazita daude.

## 7. ONDORIOAK

Lan honen gauzapean arazo andana eman ditu. Nagusietakoa iturrien falta izan da, izan ere, ETaren inguruko informazio mordoa egon arren badirudi etakide batzuk nahiko ezkutuan gorde izan direla: badira informazio mordoa bilatu daitekeen pertsonaiarik (seguraski mitifikazioen eraginez) zein informazio bilaketak buruhauste handiak sortu dituenik. , biografia mardulak osatu dira, eta zati handienak hemen agertu ez arren, beste bitartekoren batekin argitaratu daitezke aurrerantzean.

Bestetik, aipagarria ere bada nola hasieran sortutako proposamenetik, informazio eta ikasketa berriak atera diren heinean, laneko hipotesiak aldatuz eta egituraketa egokituz joan den. Hala nola, ikerketa lerroen (eta beraz, ondorioen) klasifikazio eta konpartimentazioa lan konplexua suertatu da egilearentzat, aspektu guztien intererlazioak asko zailtzen baititu eginbehar hauek. Kasu batzuetan Idatzirik zeuden atal osoak guztiz desegitera heldu da.

Haatik lan honen ondorio nagusietako bat metodoaren erabilgarritasunaren ingurukoa da. ETA bezalako talde klandestino baten gainean lehen aldiz egindako ikerketa prosopografikoa izateak ez du ikerketan emaitza positiboak eman izana ukatzen, eta hare, azterketa prosopografikoari erabilgarritasun balore bat ematen dio, gizarteko beste zirrikitu eta aspektu askotan ere aplikagarria denaren seinale. Lan honek, besteak beste, barne funtzionamenduari buruzko informazioa, perfil soziologiko orokorra ateratzeko aukera, euskararen gaineko ikuskera eta jakintza maila, militantziaren bizitza pertsonaletako eraginak, praktikari eta analisiari begirako teorizazio desberdinak, etab. ulertzeko parada eman du. Dena den, ezin alboratu daiteke GrAL batek estrukturalki dauzkan mugak prosopografiaren potentzialtasun guztia esplotatzeko ezintasuna dakarrela, izan ere, lan honen ezaugarriak gaindituko litzuzke 7 pertsonatik gorako talde bat hautatzeak. Horregatik mugatu da ikerketa zifra honetara. Hala ere, 7 pertsonako taldea hamarnaka kide pasatu diren ikerketaren objektuan (ETAko zuzendaritza) lagin oso txikia da, eta horrenbestez, hemen ateratako ondorioak ez dira guztiz estrapolagarriak zuzendaritza osora, eta hare gutxiago ETA osora. Horrenbestez, eta lan honi etekin gehiago atera nahiko balitzaio, ikerketa taldearen kopurua handitu beharko litzateke.

Dena den, ikerketaren ondorioen artean, kide hauen nolakotasunaren gaineko lehendabiziko ikuspegi bat antolatu da: Klase ertaineko kideek osatuko lukete ETAko zuzendaritzaren gehiengoa, gune industrializatuetan edo gutxienez nekazal-guneak ez diren horietan heziak. Inguru politikoekiko eta baita ETArekiko hurbilpena, interes nazionalista euskaldunetatik eratorri zitzairen, eta inguru sozialak (lagunartea, unibertsitatea,...) ahalbidetu zien gaztaroan (20 eta 30 urteen bitartean, nagusiki) ETA sortu edo honekin kontaktuak eraikitzea. Behin ETAn sartuta, ibilbide desberdinak egin zituen bakoitzak zuzendaritzara heldu aurretik, baina ikusi da, lan ideologikoa eta borroka armaturako eta “ekintzarako” grina zirela gehien baloratzen ziren faktoreak, baina baita antolakuntzarako gaitasuna ere. Eztabaida ideologikoei dagokionez, ez da zehazki identifikatzerik lortu bakoitzaren iritzi politikoaren jatorria (familia, posizio soziala, lanpostua, esperientzia militantea,...), baina organizazioko eztabaida nagusien nondik norakoak identifikatu dira, nagusiki nazio auziari, auzi sozialari eta antolakuntza moduari loturikoak zirelarik eztabaidak, bereziki borroka armatuari loturikoak azken honetan. Bukatzeko, hartutako laginaren arabera ETAko militantzia utzi izanaren arrazoi nagusiak, heriotza, desadostasun ideologikoak eta kanporaketak izan ziren, eta gehienek urte batzuetan militantzia politikoan jarraitu bazuten ere, nahiko ibilbide politiko anitza izan zuten: nazionalista erradikala, komunista edo libertarioa besteak beste. Esan behar da, bizirik jarraitutakoen gehiengoak, garai batzuetan behintzat, ETA distantziatik baina



gutxieneko onespenez ikusten jarraitu zuela. Komenigarria litzateke fenomeno honen arrazoiak ikertzea baina erruz gaindituko lirateke lan honen mugak.

Azkenik, eta lanarekin bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi etorkizunerako ikerketa lerro berrien abiapuntu proposamenak egiten direla. Hasitako, eta ondorio orokor batzuk lortutako ikerketa lerroek, horietan sakontzeko aukera eta beharra plazaratzen dute. 6.4. puntuan adibidez, eztabaiden eta banaketen arrazoi nagusiak plazaratu dira, banaketen, edo jarraikortasunen eta hausturen ikerketa sakonago bat egiteko abiapuntu bat eskainiz. Edo 6.2.an bakoitzaren bizibaldintzak aztertu dira, nahi izanez gero, horien eta posizio teoriko edo politikoen arteko lotura nolakoa zen (loturarik baldin bazegoen) ikertu daitekeelarik. Borroka armatuari buruzko puntua (6.4.3.) ere interesgarria da aspektu honetan, ikerketa hau sakontasunez lantzeak etakideen printzipio etikoak aztertzeko parada eman baitezake, hau da, etakideen arrazionaltasunaren ikuspegitik ongiztat/gaizkitzat zer eta zeren arabera kontsideratzen zen aztertzeko baliagarria izan daiteke. Azken elementu hau adibidez, agerikoa iruditu arren, ez da historiografian behar besteko sakontasunez landu, eta etakideen zein etorkizuneko antzeko mugimendu politikoen psikologiaren ikerketarako ekarpen positiboa egin dezake. Autoreak ez du beste asmorik izan ETA fenomenoaren ikerketan zein metodo prosopografikoaren erabileran aletxo bat jartzea baino, eta etorkizuneko bide historiografiko berriak irekitzea du espero.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- A.H. (1977-05). Conversaciones con Beltza (I). *Punto y Hora*, (34.zkia). 22-25.orr.
- A.H. (1977-05). Conversaciones con Beltza (II). *Punto y Hora*, (35.zkia). 22-25.orr.
- ABC, 2013-12-09, “¿Totalitario o autoritario? Franco fue por encima de todo un superviviente”, G. D. Olmo.
- Agirrezkuenaga Zigorraga, Joseba eta Urquijo Goitia, Mikel (2007). Desafíos de la biografía en la historia contemporánea. *Cercles: revista d'història cultural*. (10.zkia) 57-81.orr.
- Agirrezkuenaga Zigorraga, Joseba; Serrano Abad, Susana; Urquijo Goitia, Jose Ramon; Urquijo Goitia, Mikel (1993): *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Aizpurua, Mertxe (2018). *Argala. Pensamiento en acción. Vida y escritos*. Astero.
- Alvarez Enparantza Txillardegi, José Luis (1997). *Euskal Herria en el horizonte*. Tafalla: Txalaparta.
- Alvarez Enparantza Txillardegi, Jose Luis (2004). *Euskararen aldeko borrokan. Euskalgintza eta euskalaritzako idazlan hautatuak 1956-1983*. Donostia: Elkar.
- Amigo, Ángel (1978). *Pertur ETA 71-76*, Donostia. Lur.
- Asurmendi, Mikel (2012/IX/16). Emilio Lopez Adan, ETAre estrategia armatuaren historiaz. *Argia* (2336.zkia)
- Barbarroja, Cristina S. (2015-06-02). Eugenio del Ríó. La primera disidencia de ETA. *Público*.
- Bastida, L; Zubiondo, I (1983-04-24). EMK. Urrats bat Ezker Abertzalearenganantz. *Argia*, (972. Zkia).
- Belaustegi Bedialauneta, Unai (2014). Gipuzkoako errepublikanismoaren azterketa prosopografikoa (1868-1923). *Vasconia: cuadernos de historia y geografía* (40.zkia), 59-90 orr.
- Beñaran Ordeñana Argala, Jose Miguel (1977). Prologoa (“Autobiografía política” izenez ezaguna). In Apalategi, Jokin. *Nationalisme et question nationale au Pays Basque 1830-1976*. PNV, ETA, ENBATA. Baiona: Elkar.
- Bilbao Ariztimuño, Kepa (2006). *Crónica de una izquierda singular. El nacimiento de E.T.A. (1959), la primera escisión (1966-1967) y la formación de E.M.K.*
- Bruni, Luigi (1987). *E.T.A. Historia política de una lucha armada*. Bilbo: Txalaparta.
- Burdiel, Isabel eta Romero, Mari Cruz (1996). Los sujetos en el proceso revolucionario español del siglo XIX: el papel de la prosopografía histórica. *Historia Contemporanea* (13.zkia) 149-156 orr.
- Carasa, P. (1994). *Élites. Prosopografía contemporánea*, Valladolid: Universidad de Valladolid.
- Casáls, Quintí (2014). *La representación parlamentaria en España durante el Primer Liberalismo (1810-1836)*, Ediciones de la Universitat de Lleida. 13 orr
- Casanova, Iker; eta Asensio, Paul(2006). *Argala*. Tafalla: Txalaparta.
- Catalán, Jordi (2010). Economía industrial baten heldutasuna. 1936-1939. In De La Granja, Jose Luis; De Pablo, Santiago (koord.). *Laurak bat: Euskadi eta Nafarroa XX. Mendean*, (197-222 orr). UPV/EHU.
- Crenshaw, Martha (1981). The Causes of Terrorism. *Comparative Politics* (13.zkia) 379-399.orr.
- Documentos Y* (1981). Zarautz: Hordago.
- Dominguez, Florencio (1998). *ETA: Estrategia organizativa y actuaciones, 1978-1992*. Bilbao: UPV-EHU.
- Egaña, Iñaki (2018-06). *Jose Mari Quesada Lasarte*. Euskal Memoria aldizkaria, (17.zkia), 2018. 16-19 orr.
- El Confidencial*, 2017, “¿Quién mató a Pertur? El Gobierno vasco pide ayuda para resolver el misterio”, J.M. Alonso San Sebastián. (On line bertsioa, 2020/V/05): [www.elconfidencial.com](http://www.elconfidencial.com)
- El Correo*, 2012-09-22, “Pertur, caso no resuelto”, M. Sáiz-Pardo.
- El Diario Vasco*, 2006-12-26, “Carrero, Franco y ETA”, J. M. Calleja.
- El Diario Vasco*, 2009-03-26, “La masía del caso Pertur”, I. Dominguez.
- El Mundo*, 2003-12-21, “Yo maté al asesino de Carrero Blanco”, A. Rubio.
- El País*, 2001-01-28, “Hablan las víctimas de Melitón Manzanás”, M. A. Iglesias.
- El País*, 2018, “El dolor por 854 muertos y miles de amenazados y heridos”, M. Ceberio.
- ETA (1967). *Zutik*, (43.zkia).
- ETA (1974). *ETAre Agiria*.
- ETA (1976). *Zutik*, (67.zkia).
- Etxeberria, Idoia (2009). *Donostiako ahotsak. J.L. Alvarez Enparantzari elkarrizketa. Ahotsak.eus*.

- Fernandez Soldevila, Gaizka (2013-01-04). *Los Amis*. Blog de Gaizka Fernandez Soldevila. (On line bertsioa 2020/V/06an kontsultatua): <https://gaizkafernandez.com>.
- Fernandez Soldevila, Gaizka (2014). El simple arte de matar. Orígenes de la violencia terrorista en el País Vasco. *Historia y política* (32.zkia). Madrid. 271-298 orr.
- Fernandez Soldevila, Gaizka (2014). *La efímera Euskadiko Herriko Batzarra (Asamblea Popular de Euskadi) de 1975*. Gaizka Fernandez. 2014/IX/04
- Fernandez Soldevila, Gaizka (2015). De Aberri a ETA, pasando por Venezuela: Rupturas y continuidades del nacionalismo vasco radical (1921-1977) *Bulletin d'Histoire Contemporaine de l'Espagne* (51.zkia.). 219-264.orr.
- Fernandez Soldevilla, Gaizka (2012) *Historia de una heterodoxia Abertzale: ETA político-militar, EIA y Euskadiko Ezkerra (1974-1994)* (Tesi doktoral). UPV-EHU.
- Ferrari, Marcela (2010). Prosopografía e historia política: algunas aproximaciones. *Antítesis*, (5.zkia.), 529-550.orr.
- Gallo, Max (1971). *Historia de la España franquista*. Ruedo ibérico.
- García Delgado, José Luís (2000). *Franquismo. El juicio de la historia*. Madrid: Temas de Hoy.
- Garmendia, José María (2000): "ETA: Nacimiento, desarrollo y crisis (1959-1978). In Elorza, Antonio (koord.): *La Historia de ETA*, (77-168.orr). Madrid: Temas de Hoy.
- Garralda Arizcun, José Fermín. *Orígenes e ideología del nacionalismo vasco*. Inguma: [www.inguma.eus](http://www.inguma.eus)
- Jáuregui, Gurutz (1985). *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*. Madrid: Siglo XXI.
- Jáuregui, Gurutz (2000). ETA: Orígenes y evolución ideológica y política. In Elorza, Antonio (koord.). *La Historia de ETA*. (171-274 orr), Madrid: Temas de Hoy.
- Javato González, Víctor Manuel (2011). ETA. Orígenes e ideología. *Ab Initio* (3.zkia). 143-163. orr.
- Krutwig, F (1963). *Vasconia: estudio dialéctico de una nacionalidad*. Buenos Aires
- Lopez Adan Beltza, Emilio (2012). *ETAren estrategia armatuaren historiaz*. Baiona: Maiatz.
- Lopez Adan Beltza, Emilio (2019/III/27). *Klase eta alderdiaren inguruan, 1970-1980 urte bitarteko eztabaidak Ezker Abertzalean*. Hitzaldia. UPV-EHU Leioa.
- Lorenzo Espinosa, Jose Maria (1996). *Txabi Etxebarrieta. Poesía y otros escritos*. Tafalla: Txalaparta.
- Lorenzo Espinosa, Jose Maria (2018). *ETA. La historia no se rinde*. Boltxe Liburuak.
- Lorenzo Espinosa, José María (2018). *Txabi Etxebarrieta, armado de palabra y obra*, Tafalla: Txalaparta.
- Moradiellos, Enrique (2000). *La España de Franco (1939-1975). Política y sociedad*. Madrid: Síntesis.
- Moreno Bergaretxe Pertur, Eduardo (1976). *Ponencia Otsagabia*.
- Muro Ruiz, Diego (2004). *Ethnicity and Violence: The Case of Radical Basque Nationalism* (Tesi doktoral). University of London. 157. or.
- Núñez, Luis; Egaña, Iñaki; *et alii* (1993). *Euskadi eta askatasuna / Euskal Herria y la libertad. 1952-1965 de Ekin a ETA*: 1. Tomoa. Tafalla: Txalaparta.
- Núñez, Luis; Egaña, Iñaki; *et alii* (1993). *Euskadi eta askatasuna / Euskal Herria y la libertad. 1966-1969 La V Asamblea*: 2. Tomoa. Tafalla: Txalaparta.
- Núñez, Luis; Egaña, Iñaki; *et alii* (1993). *Euskadi eta askatasuna / Euskal Herria y la libertad. 1970-1973 Entre Burgos y Carrero*: 3. Tomoa. Tafalla: Txalaparta.
- Núñez, Luis; Egaña, Iñaki; *et alii* (1993). *Euskadi eta askatasuna / Euskal Herria y la libertad. 1974-1976 Milis y Polimilis*: 4. Tomoa. Tafalla: Txalaparta.
- Ortiz, Javier (2000/08/23). *Así se escribe la historia*. (On line bertsioa 2020/V/08ean kontsultatua): [www.javierortiz.net](http://www.javierortiz.net)
- Pablo, Santiago de *et alii* (2012). *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Madrid: Tecnos.
- Pascual, Jakue (1996). *Telúrica Vasca de Liberación: Movimientos sociales y juveniles en Euskal Herria*. Felix Likiniano Kultur Elkartea.
- Payne Stanley, G. (2017-01-25). *El concepto de fascismo*. Revista de Libros-en argitaratua. (On line bertsioa, 2020/IV/28an kontsultatua): [www.revistadelibros.com](http://www.revistadelibros.com)
- Público*, 2017-11-15, "Franquismo o fascismo", V. Navarro.
- Real Academia Española; Asociación de Academias de la Lengua Española* (2019). *Diccionario de la Lengua Española (DLE)* 23.3 bertsio elektronikoa.
- Stone, Lawrence (1986). *El pasado y el presente*, Mexiko: FCE.

- Unzueta, Jose Luis *Patxo* (1980). La V asamblea de ETA. *Saioak. Revista de los estudios vascos*, (4.zkia.). 3-52.orr.
- Unzueta, Jose Luis *Patxo* (2000). Epílogo. Regreso a casa. (Ayer y hoy). In Elorza, Antonio (koord.). *La Historia de ETA*. (421-439.orr.) Madril, Espainia: Temas de Hoy.
- UPV-EHU (2017/05/17). *Pertur gaiari buruzko txostena: gaur egungo egoera*.
- Uribe, Imanol (Cobra Films/Irrintzi Zinema) (1979). *El Proceso de Burgos*. [www.documaniatv.com](http://www.documaniatv.com)
- Urquijo M. Agirreazkuenaga J. Gracia J. Martinez F. Alonso E. Serrano S (2009): De la biografía a la prosopografía: los parlamentarios de los distritos de Vasconia en la II República española (1931-1939). *Cuadernos de Historia Contemporánea*, (31. Zkia) Madril, 193-221.orr.
- Velez de Mendizabal, Jose Mari (2011). Emilio Lopez Adan. Idazlea: Askatasuna sortzeko beti errefusatuko ditut militarismoa, diktadura eta terrorismoa. *Euskonews* (562.zkia)
- Zunbeltz (1968). Hacia una estrategia revolucionaria vasca. *Iraultza*, (1. Zkia).